

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LIBURUAK 2012/2021

ARGITALPEN ZERBITZUA

www.ehu.eus

Hitzaurreak 5

## Giza Zientziak 8

FILOLOGIA 8
FILOSOFIA 18
LITERATURA 20
HISTORIA 21
ARTEA 27

## Gizarte Zientziak 32

ZUZENBIDEA 32
EKONOMIA 34
PEDAGOGIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAK 36
PSIKOLOGIA 41
SOZIOLOGIA 42
KOMUNIKAZIO ZIENTZIAK 48

## Bizitzaren Zientziak 52

BIOLOGIA 52
OSASUN ZIENTZIAK 53

## Zientzia Zehatzak eta Materiarenak 60

GEOLOGIA 60
FISIKA ETA KIMIKA 62

## Zientzia eta Teknologia 64

INGENIARITZA 64
MATEMATIKA 69
ARKITEKTURA 70
INFORMATIKA 72

LIBURU BILDUMAK 75



UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak Euskal Herriko Unibertsitatean hezkuntza, irakaskuntza, ikerketa eta kultura sustatzen du argitalpen produkzioaren bidez, ezagutza eta ikaskuntza garatzen eta gizarteari zabaltzen lagunduaz. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak arreta berezia jartzen du euskaraz aurkezten diren materialetan, eta, azken hamarkadetan UPV/EHU espezialitate arlo askotan euskarazko eskaintza duen unibertsitate ikurra bilakatzeaz gain, arlo berrietan euskarari bide egiteko ukaezinezko gaitasuna erakutsi du. Bizi berria dugun pandemia da horren erakusgarri garbia. Pandemia garaiak guztion memorian sortu duen oroitzapen kolektiboan erreferentzia nagusi eta eredu bihurtu da, naturaltasun osoz, UPV/EHUko ikertzaileek garatutako ezagutza eta ikaskuntza; azken finean ezagutza eta ikaskuntza baitira norbanako nahiz gizarte gisa egiten dugun aurrerabidearen sorburu.

UPV/EHUren helburu nagusietako bat ezagutza gizarteratzea izanik, gizartearen eta bereziki euskal komunitate globalaren esku jartzen ditu Argitalpen Zerbitzuaren bidez lan zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo bestelakoak. Kalitate goreneko zigiluek eta jasotako argitalpen sariek ematen duten bermearen pean katalogo honetan UPV/EHUk azken hamarkadan argitaratu dituen berrehundik gora liburu erakusten ditugu harrotasunez.

**Junkal Gutierrez**

UPV/EHUko Euskara, Kultura
eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

Gure eginkizun nagusietako baten emaitzari aurkezpen-hitz batzuk jarri nahi nizkioke aukera hau baliatuz.

Irakasle-ikertzaileek, itzultzaile-zuzentzaileek, Euskara Zerbitzuak eta Argitalpen Zerbitzuak (hurrenkera horretan) egiten dugun lana plazara zabaldu da katalogo honen bidez, eta sarrera-hitz batzuk biltzea dagokigu, katalogoaren aurkezpen gisa.

Euskararen normalizazioan Euskal Herriko Unibertsitateak egiten duen ahaleginaren ondorioetako bat da katalogo hau. Argitalpenen arloan, helburuak betetzeko gure unibertsitateak erabiltzen dituen baliabide materialek eta giza baliabideek katalogo honetan biltzen den uzta oparoa eman dute.

Euskararen Plan Gidariaren arabera, Euskara Batzordeak erabakitzen du nazioarteko zer ikasliburu itzuli behar diren, eta han erabakitakoari jarraitzen dio gure unibertsitateko Euskara Zerbitzuak, azken urte luzeetan finkatua dugun metodología erabiliz: itzultzaile profesionalak, arloan arloko adituak begiraletza teknikoko lanak egiten eta Euskara Zerbitzuko kideak hizkuntza-begiraletzako lanak egiten: denak, itzulpen zaindu eta kalitatezkoak lortzeko helburuarekin.

Itzulpen horietaz gainera, gure unibertsitateko irakasle-ikertzaileek euskaraz sortutako eskuliburuak eta ikasmaterialak ditugu, eta, beharrezko ikusi izan denean, Euskara Zerbitzuaren babesa izan dute euskararen aldetik zuzen eta egoki argitaratzeko. Horietako batzuk UEUrekiko hitzarmenaren bidez argitaratzen dira, koedizioan.

Euskara Zerbitzuan hizkuntza-baliabideen arloa ere zaindu nahi izaten dugu. Hizkuntza bera jakintza transmititzeko tresna izanik, hizkuntzaren beraren ezagutzan aurrera egiteko, urtero ahalegintzen gara euskara hizpide duten lanak argitaratzen: geuk emandako hizkuntza-aholkuak biltzen dituzten argitalpenak ("EHULKUak"), lekuan lekuko euskara aztergai dutenak, hizkuntzalaritzari buruzko artikulu-bildumak, testuak euskaraz idatzi nahi dituenarentzako eskuliburu dibulgaziozkoak (*Testugilearen eskuliburua* egitasmoa), arlo berezituetako hiztegi terminologikoak... Urtero izaten dira hizkuntza-baliabide batzuk euskararen erabiltzaileari euskararen lanketan laguntzeko.

Bildumak ere ezin ditugu ahaztu: LEGEAK-LEYES bilduma, ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat, dibulgazio zientifikoko lanak euskaraz emateko), Euskal Literatura saila, LIMES bilduma... Beren ibilbidea hasi zutenetik, bilduma guztietan daukagu batez beste ekoizpen bat (gutxienez) edo gehiago urtero: arlo juridikoan, zientziaren dibulgazioan, euskal literaturaren inguruan, pentsamenduaren klasikoetan... Denak arreta handiz eta mimoz zaindutako edizioetan plazaratzen dira.

Aldizkari zientifikoetan ere, beste horrenbeste: *EKAIA, TANTAK* eta *GOGOA* aldizkarietan, euskaraz sortutako ikerketa-lanak argitaratzen dira, adituentzat eta hain aditu ez direnentzat ere bai; denak, edukiaren eta euskararen aldetik artikulu guztiak behar duten arretaz landu eta gero.

Kantitatea bezain garrantzitsua da kalitatea guretzat, edo, are, kantitatea baino garrantzitsuagoa: Euskararen kalitatea dugu Euskara Zerbitzuan jomuga: nahiz gure ekimenak izan (itzulitako eskuliburuak, bildumak, ikasmaterialak...), nahiz zerbitzuz kanpoko ekimenak izan, gure eskuetatik igarotzen dira Argitalpen Zerbitzuak euskaraz argitaratu behar dituen argitaragai guztiak: gure baliabideen arabera jokatzen dugu, baliabide horien arabera erantzuten dugu, baina beti eskatzen dugu liburu bat euskaraz argitaratzeko gutxieneko hizkuntza-maila bat: argitaragaia maila horretara iristen ez bada, geu ahalegintzen gara laguntzen egileei, baina argi daukagu gutxieneko hori bermatu behar dela, euskarari behar duen duintasuna eta kalitatea emateko. Gaztelaniazko eta ingelesezko argitalpenekin egiten den bezala, bestalde. Ez gara, ba, gutxiago izango euskararekin, ezta?

Egindako ahalegin guztiak, haatik, ez du zentzurik argitalpenak erabiltzen ez badira: horixe dugu kontu honetan guztian ardatz eta giltzarri: baliabide asko inbertitzen du unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitalpen hauek prestatzen, eta ahaleginak merezi izango du gero erabiltzen baldin badituzte irakasleek, ikasleek, unibertsitateko sailek eta ikastetxeek. Hala izango ahal da!

**Jesus Mari Makazaga**
UPV/EHUko Euskarazko Aholkularitzaren eta Testugintzaren arloko zuzendaria

# Giza Zientziak · Gizarte Zientziak · Bizitzaren Zientziak · Zientzia Zehatzak eta Materiarenak · Zientzia eta Teknologia

## FILOLOGIA

### Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara




Saran (Lapurdi) bost urtean (2013-2017) lanean aritu ondoren, Nafarroa Beherera joan da Koldo Zuazo eta, hango egonaldiaren (2018-2020) emaitza aurkezten du liburu honetan. Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara izan du aztergai. Nafarroa Behereko hego-mendebalean daude bi ibar horiek, Lapurdiren eta Nafarroaren mugan, eta hamaika herri dira han.

Bi osagai ditu liburuak: gramatika eta hiztegia. Gramatikaren atalean hango euskararen egitura erakusten du, oinarrizko gertakariak. Hiztegia oso zabala da: 4.625 sarrera, 934 azpisarrera, 75 esamolde eta 35 esaera eta esaera zahar dira denetara. Azken batean, gaur egun Nafarroa Beherean egiten den euskara ezagutzeko bitarteko egokia.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egilea: | Koldo Zuazo Zelaieta | Urtea: | 2021 |
| ISBNa: | 978-84-1319-321-2 | Or.: | 438 |
| Formatua: | 17 x 24 | Salneurria: | **20,00 €** |

## Bi hizkuntza garun bakarrean. Euskal psikohizkuntzalaritzaren ekarpenak eta erronkak




Euskaldun guztiok bi hizkuntza (gutxienez) ikasi eta erabiltzen ditugu gure eguneroko bizitzan. Baina zer eragin dauka elebitasunak hizkuntzaren jabekuntzan eta erabileran edo hizkuntzen patologietan? Nola lortzen dugu une oro erabili nahi dugun hizkuntza egokia hautatzea, edo hizkuntza batetik bestera nahi dugunean aldatzea? Eraginik ba al du gure hizkuntzaren erabileran gure bi hizkuntzek ezaugarri tipologiko bereizle nabariak izateak euren artean? Berdin prozesatzen al ditugu gure bi hizkuntzak?

| | |
|---|---|
| Egileak: | Kepa Erdozia Uriarte, Mikel Santesteban Insausti, Adam Zawiszewski (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-1319-362-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 184 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu.
### Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai




Euskara oinarri eta elebitasuna helburu. Hori da, hain zuzen, liburu honetan biltzen diren lanen abiapuntua eta xedea: euskara eleaniztasunaren erdigunean jartzea. Eleaniztasuna euskal gizarteko errealitate bihurtu da eta termino arrunt bilakatu zaigu azken urteotan. Besterik da eleaniztasun hori nola irudikatzen den, hizkuntzen arteko indar desorekak kontuan hartzen diren eta zein helbururekin sustatzen den.

| | |
|---|---|
| Egileak: | L. Diaz-de-Gereñu, I. Manterola, I. M. Garcia-Azkoaga (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-1319-342-7 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 304 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

## Oinarrizko Hiztegia. Latina - Euskara




- 19.000 sarrera.
- Sarreretan bokal luzeak adierazita.
- Erabilera-adibide ugari, itzulpen eredugarriekin.
- Perfektu eta partizipio perfektu zailenen zerrenda.
- 1.600 izen berezi: pertsona-izenak, leku-izenak eta pertsonaia mitologikoak.
- Gramatika-laburpen zehatza, egitura gramatikal nagusien itzulpen eredugarriekin.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Zenbait egile |
| ISBNa: | 978-84-1319-134-8 |
| Formatua: | 11 x 17,5 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 798 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

# FILOLOGIA

## Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia




2004ko otsailaren 18an aurkeztu zen jendaurrean Lazarraga Eskuizkribua eta harridura handia sortu zuen filologo, literaturzale eta euskaltzaleen artean, Arabako euskaraz idatziriko lehen lekukotasun luzea zelako (xvi. mendearen amaiera edo xvii. mendearen hasierakoa). Argitalpena bi liburukitan antolaturik dago. Lehenengoan, Joan Perez Lazarragakoren (c. 1547-1605) bizitzari eta idazlanei buruzko sarreraren ondoren, Lazarraga Eskuizkribuaren gramatikaren azterketa sakona eta hiztegia eta adizkitegia argitaratu dira.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole, Blanca Urgell |
| ISBNa: | 978-84-1319-161-4 |
| Formatua: | 14,85 x 22,4 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 396 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

**Filologia eta Hizkuntzalaritza saila, 22**

## Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa II. Testua




2004ko otsailaren 18an aurkeztu zen jendaurrean Lazarraga Eskuizkribua eta harridura handia sortu zuen filologo, literaturzale eta euskaltzaleen artean, Arabako euskaraz idatziriko lehen lekukotasun luzea zelako (xvi. mendearen amaiera edo xvii. mendearen hasierakoa). Bigarren liburukian, Lazarraga Eskuizkribuko testu osoaren edizioa dator: ezkerreko orrialdeetan, edizio filologikoa eta, eskuinekoetan, testu hori berori, baina euskarazko gaurko grafiara aldaturik.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole, Blanca Urgell |
| ISBNa: | 978-84-1319-162-1 |
| Formatua: | 14,85 x 22,4 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 704 |
| Salneurria: | **35,00 €** |

**Filologia eta Hizkuntzalaritza saila, 23**

## Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre




Koldo Zuazo irakasle-ikertzaileak urteetan Euskal Herriko zoko-bazterretan barrena zorrotz jorratu dituen gaiak ekarri ditugu bere lankide eta lagunok orri hauetara: euskararen historia, euskalki-hizkeren deskribapena eta sailkapena, gazteen euskara, estandarraren eta herri hizkeren arteko harreman ez beti erraza, hizkuntza aldakortasuna; hizkuntzaren iragana, oraina eta geroa, funtsean.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Iñaki Camino Lerchundi, Xabier Artiagoitia Beaskoetxea, Irantzu Epelde Cendoya, Koldo Ulibarri Orueta |
| ISBNa: | 978-84-1319-266-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 778 |
| Salneurria: | **32,00 €** |

## Izen-sintagmaren antolaera




Hitz egiterakoan, lehenik eta behin (edo, hobeki, aditzak adieraziko duenarekin batera), aipatu behar ditugu gure errealitatea osatzen duten zerak, konkretuak (leku, objektu, izaki) nahiz abstraktuak (denbora, egoera, erlazio, gertakari): izen bat eman, alegia, zeroi.

Gero, hala izendaturiko zer mota bakoitzetik, zenbat alez ari garen jakinarazi behar izaten dugu, hots, dena delakoa kuantifikatu: bat, zenbait, asko.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Juan Garzia Garmendia |
| ISBNa: | 978-84-1319-092-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 128 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## Euskalkien sailkapen berria




Esku artean duzun lan hau ez da euskalkien sailkapen bat gehiago. Izan ere, liburu honek errotik aldatzen du euskalkiak eta hizkerak sailkatzeko metodologia. Metodologia eta prozedura berriak azken bost urteotan garatutako ikerketen bidez landu dira, eta lortu diren emaitzen dibulgazio-lana duzu argitalpen hau.

Hizkuntzalarientzat ez eze euskalkiak maite eta tokian tokiko hizkeren zale den irakurle ororentzat egina da liburua.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea *Txipi*, Xarles Videgain |
| ISBNa: | 978-84-1319-096-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 184 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

## Sarako euskara




Erabat ezezaguna genuen Lapurdiko mendebaleko euskara eta eremu horretako herri bat hartu du Koldo Zuazok aztergai: Sara. Esangura bereziko herria euskararen historian. 1617an Sarako euskaran idatzi zuen Esteva Materrak *Doctrina Christiana* liburua, eta harekin hasi zen Lapurdiko literaturaren gorakada. 1643an agertu zen ***Gero***, Sarako erretore zen Axularrek idatzia. Liburu horiei esker, ospea eta izen ona lortu zuen Sarako euskarak.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Koldo Zuazo Zelaieta |
| ISBNa: | 978-84-9082-821-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 326 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Axular eta *Gero* Patxi Salaberriren pasio




Patxi Salaberrik bere lan-ibilbidea amaitu zuenean, lankide eta lankide ohi batzuek ondo merezia zuen omenezko zerbait argitaratzeaz jardun genuen. Eta beste asmo askoren artean, hauxe gailendu zen: Patxiren arlo horretako ekarpenaren garrantziaz jabeturik, *Geroren* inguruan aldizkari- nahiz liburu-artikuluetan egin duen ekoizpena liburu batean berrargitaratzea erabaki genuen.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Gotzon Aurrekoetxea Olabarri, Jesús Mari Makazaga Eizagirre, José Luis Ormaetxea Lasaga «Txipi» (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-873-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 920 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Oinarrizko kontzeptuak eta ereduak interpreteen eta itzultzaileen trebakuntzarako




Liburuaren bertsio honetan, 1995ekoa sistematikoki zuzendu, hobetu eta eguneratu da. Liburua mundu osoko itzulpengintza eta interpretazioko trebakuntza-programetan erabiltzen da, eta Itzulpengintzako Ikasketen nazioarteko komunitatean maiz aipatzen da. Itzulpengintza eta interpretazio profesionalaren printzipioak eta arlo horretan maiz agertzen diren arazoak eta zailtasunak ulertzeko behar diren oinarri kontzeptualak ematen ditu.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Daniel Gile |
| ISBNa: | 978-84-9082-937-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 284 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Ekonomia arloko itzulpengintza. Frantsesa-euskara




Gida hau Ekonomia arloko itzulpengintzarako hastapen metodo bat da, B edo C hizkuntza frantsesa daukaten Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleek alderantzizko itzulpena eta, batik bat, itzulpen zuzena landu ditzaten. Argitalpen frantses eta frankofono espezializatuetatik aukeratu ditugu hainbat kazetaritza-artikulu zein testu teoriko, adibideok ikasleari itzulpen tekniko mota honen zailtasunak ezagutzen eta gainditzen lagundu diezaioten.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Inmaculada Barrena, Juan Ibeas, Lydia Vázquez |
| ISBNa: | 978-84-9082-930-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 156 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## Bariazioa esaldien intonazioan




Aurrerantzean egiteko geratzen den bidea luzea eta malkartsua bada ere, lan honetan oinarrizko esaldien intonazioaren azterketa burutu da. Horretarako Euskal Herriko zazpi probintzietako informanteen datuak jaso dira. Datuok aztertzerakoan egitura prosodikoaren hierarkia (Nespor eta Vogel, 1986) eta eredu metriko-autosegmentala (Pierrehumbert, Beckman eta Ladd, 2000) kontuan izan dira.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Aintzane Etxebarria Lejarreta, Naia Eguskiza Sánchez (ed.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-793-2 |
| Formatua: | 14,85 x 22,4 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 306 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

**Filologia eta Hizkuntzalaritza saila, 20**

## Esaldiak josten. Anaforak, lokailuak, aditz-isiltzea, sasimenderakuntza, nominalizaziozko joskera, esaldi-adjektiboak, joskeren aukera, puntuazioa elkargailu




Liburu hau ***Esaldiaren antolaera: funtzio-informatiboak gako*** liburukiaren segida da. Esaldiaren esparruan aritu ginen han, eta egokia zen hortik abiatzea, esaldia izanik diskurtsoaren unitate oinarrizkoa. Oraingo honetan, hortik aurrerako –hortik gorako– urratsari ekingo diogu: ea esaldiak diren unitate prosodiko, sintaktiko eta semantiko nagusi horiek nola konbinatzen diren testua osatuz joateko, hots, nola josten den esaldiz esaldi diskurtsoaren haria.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Juan Garzia Garmendia |
| ISBNa: | 978-84-9082-731-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 104 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara




Gotzon Aurrekoetxea, zerbait izatekotan, hurreko pertsona da, naturala eta pasionatua bere zereginetan; egiten duen gauza guztietan bihotza jartzen duen horietakoa. Irakasle izan dutenek aitortuko dute haren hurbiltasuna, ikerketa taldekide izan dutenek bezalatsu, edo familiako kide zein lagunek. Bere naturaltasunean, bihotza jartzen dio egiten duen guztiari eta, ezbairik gabe, bihotza jartzen denean uzta oparoa jasotzen da gero handik.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Aitor Iglesias Chaves, Ariane Ensunza Aldamizetxebarria (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-582-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 336 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

## Itzulpengintza Literarioaren Gida. Frantsesa-euskara




Gida honek alderantzizko itzulpen literarioaren eta batez ere zuzenekoaren hastapenetarako baliabide pribilegiatu bat eskaintzen die Itzulpengintza eta Interpretazioa graduko ikasleei, B edo C hizkuntza frantsesa daukatenei, hain zuzen. Helburu horrekin, bai gaur egungo testuak, bai klasiko enblematikoak proposatzen dira, Frantziako zein, oro har, frantsesezko literaturatik.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Juan Manuel Ibeas Altamira, Marina Ruiz, Lydia Vázquez, Arrate Aldama |
| ISBNa: | 978-84-9082-733-8 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 128 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara




Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara da saio honen aztergaia. 25 herri dira guztira eta hizkuntzaren aldetik badu interesa: Euskal Herriko ipar-mendebaleko ertzean dago eta, kokagune hori dela eta, hainbat ezaugarri zahar gorde eta, aldi berean, gauza berriak sortu dira hango euskaran. Hiru atal ditu lanak. Alderdi horretako euskararen gramatika txiki bat dugu lehenean; hiztegi zabal batek osatzen du bigarrena; hirugarrenean hizkera horren egitura dialektala azaltzen da.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Koldo Zuazo Zelaieta, Urtzi Goiti Ugarte |
| ISBNa: | 978-84-9082-412-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 190 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz




Ez da liburu honetan falta euskal dialektologiari buruzko emaitzarik, euskararen ingurukorik, literaturakorik, historiakorik, etnografiakorik, soziologiakorik... Guztiek nabarmendu nahi dute irakasle eta adiskide on baten itzal luze-zabala. Eta guztiek egin nahi diote gorazarre Txipi Ormaetxeari.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Gotzon Aurrekoetxea Olabarri, Jesus Mari Makazaga Eizagirre, Patxi Salaberri Muñoa (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-305-7 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 322 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako




Liburu hau ez da sintaxi-liburu bat, nahiz eta, zentzu zabalean, joskeraz dihardue la esan litekeen. Sintaxia arau sorta baten bitartez perpaus gramatikalak sortzeko mekanismo bat da. Hiztunak arauok jakin beharra dauka. Sintaxi-arauek, ordea, erabaki gabe uzten dute nola antolatu perpausak egoki adierazteko kasuan-kasuan eman nahi den informazioa. Sintaxia, zentzu horretan, ez da interesgarria testugintzari begira. Beste nonbait bilatu beharko dugu askatasun tarte handiagoa eskainiko digun zerbait.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Juan Garzia Garmendia |
| ISBNa: | 978-84-9082-086-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 168 |
| Salneurria: | **17,00 €** |

## Ibon Sarasola, gorazarre. Homenatge, homenaje




Handia da, zentzurik onenean gainera, Ibon Sarasolaren itzal akademikoa: azkeneko hamarkadetan, alde batera edo bestera, euskararen ikerketaz arduratu garen guztiok jo behar izan dugu UPV/EHUko ikertzaileak argitaratu dituen lanak behin eta berriz ikustera eta kontsultatzera. Ongi dakigunez, erraldoia da Ibonek bere bizitzan zehar egin duen lana. Erraldoia, berezia eta ordu askoren emaitza.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Beatriz Fernández Fernández, Pello Salaburu Etxeberria (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-097-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 698 |
| Salneurria: | **30,00 €** |

## Eridenen du zerzaz kontenta: Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)




Liburu hau sailkideok UPV/EHUko Euskal Filologiako katedradun zen Henrike Knörr Borràs (1947-2008) irakasleari egin diogun omenaldi xumea da. Liburuko hogeita hamabost kapituluetan zehar egun garatzen ari garen ikerlanaren aleak aurki daitezke, honako alor hauetakoak: filologia, dialektologia, literatura, onomastika, hizkuntzalaritza sinkroniko eta diakronikoa, hizkuntzalaritza aplikatua eta konputazionala, eta psikolinguistika.

| | |
|---|---|
| Egileak: | María José Ezeizabarrena Segurola, Ricardo Gómez López (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-092-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 662 |
| Salneurria: | **32,00 €** |

## Harri-jasotze hiztegia. Euskara / Castellano / Français / English




Harri-jasotzea ez da soilik euskaldunon kirola; munduko bazter anitzetan praktikatzen da, batez ere Europan (Eskozian, Islandian, Faroeetan, Eskandinavian...), baina baita beste herrialde batzuetan ere (Japonian, Tibeten, Tahitin, Estatu Batuetan...). Dena dela, esan daiteke Euskal Herrian duela indarrik eta tradiziorik handiena. Harri-jasotzeak esparru hauek hartzen ditu: apustua, markak egitea, txapelketak eta erakustaldiak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Alfredo López de Sosoaga, José Luis Ormaetxea «Txipi» |
| ISBNa: | 978-84-9082-036-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 246 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## Birformulazioa eta birformulatzaileak euskaraz




Diskurtso-markatzaileez dihardugu liburu honetan. Zehatzago esanda, diskurtso-markatzaile jakin batzuez: birformulatzaileez. Diskurtsoa berrinterpretatzeko prozedura bat da birformulazioa: haren bidez esataria aurreko diskurtso-atalera itzultzen da, hura berrinterpretatzeko edo bestelako ikuspegi batez aurkezteko. Birformulazioa, beraz, diskurtsoan lehenago adierazitakoa bestelako hitzez berradieraztea edo birformulatzea da.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Xabier Alberdi Larizgoitia (koord.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-060-5 |
| Formatua: | 14,5 x 22,5 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 692 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

**Filologia eta Hizkuntzalaritza saila, 19**

## Euskal dialektologia: lehena eta oraina



Aurkibidea: B. Oyharçabal, J. Salaberria eta I. Epelde: «Norantz datubasea: aurkezpena eta aditz komunztadurako datua». B. Fernández: «Goi- eta behe-datiboak eta Datibo-Komunztaduraren Murriztapena: Ipar-ekialdeko hizkerak eta euskara estandarra». O. Ibarra: «Egungo gazte mintzairaren hainbat ezaugarri». I. Camino: «Ekialdeko euskararen iraganaz». J.A. Lakarra: Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: «Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz».

| | |
|---|---|
| Egilea: | Irantzu Epelde Zendoia (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9860-587-7 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 244 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

**Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak, 69**

## Mailopeko euskara




Aralarko Mailoen azpian daude Betelu, Errazkin, Lezaeta eta Araitz bailarako sei herriak: Atallu, Arribe, Azkarate, Uztegi, Gaintza eta Intza. Nafarroako mendebalean, Gipuzkoako mugan, Tolosatik gertu daude. Alderdi horretako euskararen gramatika eta hiztegia bildu dira liburu honetan. Bereziki nabarmentzekoa da osatu den hiztegi zabala: 2.656 sarrera, 148 azpisarrera, 310 esapide, 171 esaera zahar eta 6 hitz-joko aurkezten dira.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Koldo Zuazo Zelaieta |
| ISBNa: | 978-84-9860-872-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 368 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Idazleei galdezka




Hausnargaiaren ezaugarriek hala eskatuta, aspaldidanik nabarmenarazia zuen gure Literatur Mintegi honek idazleekin harreman zuzenean hasteko premia, baina arrazoizkoegiak ez ziruditen arrazoiak zirela eta, urtez urte atzeratuz joan da ekimena. Oraingoan, halere, aldeko izar eta astroen konjuntzioa gertatu bide da ortzian eta aukera baliatu ahal izan dugu behialako asmo premiatsuari ekiteko.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Patxi Salaberri Muñoz (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9860-706-2 |
| Formatua: | 27 x 19 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 122 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

# FILOSOFIA

## Gogoeta-bide irekiak. Fikzio, egia, balio eta hezkuntzari buruzko saiakera filosofiko bat




Gogoeta-bide hauek alderdi guztietatik irekiak dira. Alde batetik, zitekeena zen aukeratutako gai batzuk ez egotea eta beste gai batzuk sartzea. Azken unean bakarren bat sartu da zerrendan eta bakarren bat atera da bertatik. Beste aldetik, gai zerrenda irekia izateaz gainera, gai bakoitzaren jorrapena ere irekia da. Egilea batzuetan eroso samar sentitu da bidea egiten, gaia gertukoagotzat zeukalako. Besteetan, ordea, kostata egin du aurrera, baina gaiaren gaineko interesak bultzatu eta motibatu du egilea.

Auzi filosofikoak interesgarriak iruditzen bazaizkizu, gogoeta hauetan probetxuzkorik aurkituko duzu. Gaien artean badaude ezagutza, egia eta egia-osteari lotzen zaizkienak, badaude arte, fikzio eta umoreari lotutakoak, badaude natura, kultura eta hezkuntzaren inguruan dabiltzanak, badaude erlijio, politika eta etikari atxikiak, badaude feminismoaren ingurukoak...

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egilea: | Agustin Arrieta Urtizberea | Urtea: | 2019 |
| ISBNa: | 978-84-1319-090-7 | Or.: | 288 |
| Formatua: | 14,5 x 22,5 | Salneurria: | **16,00 €** |
| | | **Filosofia saila, 12** | |

## Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria




Wilhelm von Humboldt prusiar humanista, politikari eta hizkuntzalari ezagunak giza eta gizarte zientzien inguruko obra zabal bat du eta, horren baitan, leku esanguratsu bat betetzen dute euskal nazioari eta hizkuntzari buruzko bere saiakera eta ikerketek. Euskal Herria bisitatzen duenetik, 1799an eta 1801ean, behin eta berriz heltzen dio euskal gaiari —bereziki hurrengo hogei urteetan— baina horren emaitza ez da ageriko corpus itxi bat.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Iñaki Zabaleta Gorrotxategi |
| ISBNa: | 978-84-9082-765-9 |
| Formatua: | 14,5 x 22,5 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 348 |
| Salneurria: | **22,00 €** |
| **Filosofia saila, 10** | |

## Filosofiarako sarrera bat




Lan honek filosofiarako sarrera bat eskaini nahi du, eta gaika dago antolaturik, filosofiako esparru eta arazo asko zeharkatuz: balioak, artea, politika, gogamena, pentsamendua, zientzia, hizkuntza, ezagutza, etika... Testua unibertsitateko ikasleei begira dago prestatuta, baina pertsona gazteagoentzat eta helduagoentzat egokia izan daiteke, baita unibertsitatetik kanpoko jendearentzat ere. Kontua da auzi filosofikoak interesgarritzat hartzea.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Agustín Arrieta Urtizberea |
| ISBNa: | 978-84-9082-285-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 262 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## Oi Europa!




Zer ote da Europa delako hori? Zer da europar izatea? Zerk egiten gaitu europar? Zertan datza europar berezitasuna? Europak ez dio utzi behin ere bere egiazko izaeraz eta helburuez galdetzeari. Europaren Ideia nekez uler daiteke haren «jatorrizko gertakaria» den filosofiari erreferentzia egin gabe. Europa, batez ere, gertaera europarrik berezkoenaren sorburua da: filosofiarena.

**Euskadi Literatura Saria 2013 - Euskarazko saiakera**

| | |
|---|---|
| Egilea: | Jon Sudupe Martija |
| ISBNa: | 978-84-9860-728-4 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 402 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Kirmen Uribe: Bizitza, fikzioa




Itzulera omen da marinel eta arrantzaleek gogoan dutena itsasoratzen direnean. Herri eta familia arrantzale batean jaiotako idazlea dugu Kirmen Uribe (1970), Bizkaiko kostan, Ondarroan, hain zuzen, eta kresal usaina erraietan daramala esango genuke. Horregatik dira etengabeak haren obran itsasoratzeak, bere herriko marinel eta arrantzaleen antzera, urruntzeak itzultzearen promesa daramalako berekin.

Esku artean duzuna Kirmen Uriberen obra literarioari buruzko ikerlanez osatutako liburua da. Helburua euskal idazlearen literaturak eragin dituen hausnarketak eta analisiak biltzea izan dugu, eta literatur genero desberdinetako lanak iruzkintzea. Kaleidoskopio baten antzera, ondarrutarraren unibertso literarioaren aurpegi eta ertz anitz jaso ditugu liburuan, haren obrak iradokitzen dituen kolore, egitura edo errealitate aberatsak. Uribek berak liburu honetako lehen atalean dioskun bezala, irakurlerik gabe ez dago libururik eta kritikarik gabe liburua hegoak moztuak dituen hegaztia da. Ez zaigu modu hoberik bururatzen liburu honen hegaldia abiatzeko.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egileak: | Mari Jose Olaziregi Alustiza, Amaia Elizalde Estenaga | Urtea: | 2020 |
| ISBNa: | 978-84-1319-125-6 | Or.: | 208 |
| Formatua: | 17 x 24 | Salneurria: | **14,00 €** |
| | | **Mikel Laboa Katedra bilduma 4** | |

## Leizarragaren idazlanetan barrena




Hiru argitalpenen hegalpean bildurik kaleratu zituen Joanes Leizarragak 1571n Kalbinen erlijioaren sei obra funtsezko, idazkeraren itsasoan murgiltzen doi hasia zen euskarari idazmolde erabat betegina eskainiz. Albreteko Joana erreginaren agindupeko nafar erresumako euskaldunen artean sinesmen berria hedatzeko eta sendotzeko baliabide gisa moldatu ziren guztiak, idazlan bakoitza eduki eta pisu ideologiko desberdinekoa bazen ere.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Patxi Salaberri Muñoa |
| ISBNa: | 978-84-9082-025-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 190 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## Nekazariak eta jaunak Erdi Aroan VIII. mendetik XV.era bitartean




Lan honek lur-jabeen eta ekoizleen arteko harremanak aurkezten ditu, karolingiarren arotik hasi, eta XIV. eta XV. mendeetako nekazari-errebolta handien garaira iritsi bitarteko aldi luzean. Mendebaldeko gizartearen eskura zeuden baliabideen ugaritzearen koiuntura eta aberastasun orokorraren handitzea, neurri batean, ekoizpena antolatzeko eta langileak kontrolatzeko egitura original jakin batzuetan oinarritu zen, eta egitura horiek *jaurgo* edo *jaun-erregimen* hitzen bitartez izendatzen ditugu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Laurent Feller |
| ISBNa: | 978-84-1319-359-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 372 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Langabezia eta herri-lanak.
### Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Bigarren Errepublikan (1931-1937)




Herri-lanak, administrazio-erakunde batek beharrizan publikoak asetzeko sustatutako obratzat defini daitezke. 1929ko krakari aurre egiteko neurrien artean obra publikoak eta haiek bultzatzeko diru laguntzak erabili ziren. Beste lurralde batzuetan bezala, lan-krisiari aurre egiteko erabili ziren Espainian, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta hiru probintzia horien kasuan, batez ere aldundiek bultzatu zituzten.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Iñaki Etxaniz Tesouro |
| ISBNa: | 978-84-1319-373-1 |
| Formatua: | 160 x 225 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 212 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

**Historia Garaikidea Saila, 63**

## Bertsolaritzaren historia soziala. Oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)




Bertsolaritzak prentsa historikoan, irratian, zineman, telebistan nahiz Interneten izandako presentziaren bilketa eta azterketa hartu da abiapuntutzat. Bertso-munduko eragiletzaren zortzi belaunaldiren biografiak eta ekarpenak ere harilkatu dira kontakizunean. Eta hau guztia Europan kultura popularrak izandako bilakaeraren testuinguruan kokatu da. Kultur bilakaera erabat singularraren errepaso zabala da azken emaitza, ahots subalternoaren bizi indarraren testigantza eder bat.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Antxoka Agirre Maiora |
| ISBNa: | 978-84-9860-696-6 |
| Formatua: | 16 x 23 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 776 |
| Salneurria: | **25,00 €** |

## Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako finantza publikoak eta Ekonomia Ituna 1929ko krisi ekonomikoaren garaian (1925-1936)




1929ko udazkenean, Wall Street-en epizentroa izan zuen «crash» ekonomikoaren metxa ziztu bizian hedatu zen mundu-mailako ekonomiara, eta hasiera eman zion kapitalismoaren historian aitzindaria izan zen krisi ekonomiko latz bati. 2008ko krisi ekonomikoaren eskutik, 1929ko krisiaren gaineko interesa eta gaurkotasuna berpiztu egin da azken hamarkadan, arlo politikoan zein akademikoan.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Mikel Erkoreka |
| ISBNa: | 978-84-1319-255-0 |
| Formatua: | 14,5 x 22,5 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 236 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

**Historia Garaikidea Saila, 61**

## Arkeologiako eskuliburua




Liburu hau baliabide paregabea da Arkeologiako ikasleentzat, eta hainbat mailatan erabiltzeko modukoa da: institutuan, unibertsitatean, helduentzako hezkuntzan, dibulgazioan... Gaur egungo gaiak eta adibide orokorrak jasotzen ditu, testuinguruan emanak. Proposatzen duen ikasketa-metodoa ere oso praktikoa da, eta gaian are gehiago sakontzeko gogoa pizten du. *The Archaeology Coursebook* ospetsuaren hirugarren edizioaren itzulpena duzu esku artean, eta erabat eguneratua eta berregituratua dator.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Jim Grant, Sam Gorin, Neil Fleming |
| ISBNa: | 978-84-1319-084-6 |
| Formatua: | 20 x 24 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 462 |
| Salneurria: | **30,00 €** |

## Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954)




Erakunderik gabeko herrietan zaila da oso herritarren arteko loturak eta estekadurak bermatzea, nortasun kolektibo baten peskizan. Are zailagoa da, zalantzarik ez, hauen ibilbidea edo historia egitea, funtsean bat dena sakabanaturik eta bilbatu gabe agertzen baita. Ezin uka horixe gertatzen zaiola Euskal Herriaren historiari eta, zer esanik ez, euskararen historiari ere.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Anton Ugarte Muñoz |
| ISBNa: | 978-84-9082-915-8 |
| Formatua: | 16 x 23 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 510 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## 1818-2018. De la Escuela de Comercio del Consulado a la Facultad de Economía y Empresa. ELCANO - Kontsulatuko Merkataritza Eskolatik Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkano atalera




Liburu honek ibilbide liluragarri bat kontatzen digu, Bilbon, 1818an, lehen Merkataritza Eskolan hasi, eta gaur egungo Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekonomia eta Enpresa Fakultatean kokatutako Elkano egoitzan amaitzen dena. Diziplina askotako eta prestakuntza heterogeneoko profesionalek osatutako talde batek ikastegiak izan dituen askotariko eraldaketak ikertu ditu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Ana Bilbao-Goyoaga, Rosa de Diego |
| ISBNa: | 978-84-9082-924-0 |
| Formatua: | 21 x 27 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 188 |
| Salneurria: | **25,00 €** |

## Munduaren eskualde geografia




Gizarte batek antolatutako espazioa aztertzen duen zientzia da Geografia. Espazioa, baina, etena eta bereizia da, eta, horregatik, *Munduaren Eskualde Geografia*ren helburua da Lurreko espazioaren antolaeraren ikuspegi sintetiko eta aski argi bat ematea, eskualde multzo handien berezitasunak erakutsiz. Gaur egun, bi espazio multzo handi daude, gizarte oso desberdinak dituztenak hala ongizateari nola garapen sozioekonomikoari dagokionez. Bi mundu dira: Iparraldea edo mundu garatua, eta Hegoaldea edo garabidean den mundua.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Blanca Azcárate Luxán, M.ª Victoria Azcárate Luxán, José Sánchez Sánchez |
| ISBNa: | 978-84-9082-695-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 554 |
| Salneurria: | **36,00 €** |

## Antzinateko greziar munduaren historia politikoa




Antzinateko Greziaren historiaren bi mila urte aztertzeari esker, modu guztizko eta dinamikoan hurbildu daiteke Mendebaldeko munduaren eraikuntzan eginkizun nagusia izan duen barruti geografiko eta humanoko egitura politikoetara. Aro arkaikoaren ondoren, non Antzinateko greziar mundua ia ez baitzen bereizten asiar ingurunetik, hirien garaia etorri zen (VIII.-V. mendeak), eta orduan loratu zen greziar jenioa.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Marie-Françoise Baslez |
| ISBNa: | 978-84-9082-724-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 324 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak Gipuzkoan, 1830-1936




Hiru helburu nagusi izan ditu egileak liburua osatzerakoan: bertsolarien lanek Euskal Herriko historiarako iturri historiko gisa duten balioaz ohartaraztea; XIX. eta XX. mendeko Euskal Herriaren historiarako modernizazio prozesuaren azterketan herri xeheak aldaketa horiek nola bizi izan zituen entzuteari garrantzia ematea; eta euskal identitatearen edota euskal identitateen gaia arazo gisa sortu eta gizartean zabaldu zeneko garaira ikuspegi kritikoz hurbiltzea.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Luzia Alberro Goikoetxea |
| ISBNa: | 978-84-9082-708-6 |
| Formatua: | 16 x 22,5 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 642 |
| Salneurria: | **32,00 €** |

**Historia Garaikidea Saila, 54**

## Historiagintzaren ikuspegi berriak. Teoria eta praktika




Liburu honen helburua historiagintzaren alderdi teorikoen inguruan hausnartzen duen euskarazko testuliburua eskaintzea da. Horretarako, azken hamarkadetako ikuspuntu teoriko berritzaileenak plazaratzeaz eta azaltzeaz gainera, historiografía klasikoaren berrikuste kritikoa eskaintzen da. Bildu ditugun hausnarketak post-sozial deitutako berrikuntza teorikoetatik abiatzen dira.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Bakarne Altonaga Begoña, Maialen Aranguren Alonso, Aintzane Rincón Díez |
| ISBNa: | 978-84-9082-751-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 180 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

## Oroimenaren lekuak eta lekuoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontaera historiko-politikoa




Memoriari eta lekukotzei buruzko ikasketek nazioartean sortu duten interesa kontuan izanik, Gerra Zibilaren harira Euskal Herrian zabaldu diren diskurtso mota ezberdinak aurrez aurre jartzea da monografiko honen asmoa. Hainbat diziplina biltzen dituen lan esparru zabala da oroimenarena. Horregatik, elkarren osagarri izan daitezke politikaren eta historiografiaren arloko diskurtsoak eta adierazpide kultural ezberdinetako errepresentazio artistikoak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Izaro Arroita Azkarate, Lourdes Otaegi Imaz (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-290-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 274 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

## Mundu modernoaren sorrera. Kontakizun global eta ekologiko bat. XV. mendetik XXI. mendera arte




Liburu erakargarri eta argi idatzitako honek mundu modernoaren sorrerari buruzko kontakizun bat dakarkigu, 1400etik gaur arteko tartea hartzen duena. Asiari, Afrikari eta Mundu Berriari buruzko ikerkuntzak ekarri duen jakintza berria erabiliz, Robert Marks-ek kontakizun bat eraikitzen du, zeinean munduko parte horiek jokatzen baitituzte rol nagusiak.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Robert B. Marks |
| ISBNa: | 978-84-9082-167-1 |
| Formatua: | 15 x 21 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 240 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## Erromatar Goi Inperioa Mendebaldean. Augustorengandik severotarrengana. K.a. 31 - K.o. 235




Liburu honetan aipatzen diren espazioak askotarikoak dira. Erroma eta Italia lurralde periferikoekin uztarturik ageri dira ezinbestean, haietako batzuk inperioaren erdigunetik guztiz urrun bazeuden ere. Dokumentazioa oparo-oparoa da, baina sakabanaturik dago, eta datuek ez diraute beti berdin, eremu geografikoaren edo aztergaiaren arabera. Horrek guztiak lan honetan ikuspegi geografiko bat erabiltzea galarazten zuen, gure iritziz.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Patrick Le Roux |
| ISBNa: | 978-84-9082-151-0 |
| Formatua: | 15 x 21 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 404 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)




Liburu hau lau urte luzez egindako lanaren lehendabiziko emaitza da. Bere garaian, helburu zehatz bati jarraikiz eman zitzaion hasiera ibiliari: Gipuzkoan nahiz Euskal Herrian sortu den hutsune historiografikoa betetzea. Estatuan kultura politiko errepublikanoari buruz gero eta ikerketa gehiago burutzen ari badira ere, hemen oraindik asko dago egiteko.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Unai Belaustegi Bedialauneta |
| ISBNa: | 978-84-9082-085-8 |
| Formatua: | 16 x 22,5 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 396 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

**Historia Garaikidea Saila, 47**

## Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko frontean. Berriatua Berrezarkuntzan, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean




Liburu honen asmoa da Gerra Zibilean Berriatuan gertatu zena berreraikitzea, eta sufritu zuten herritarren oroimena bizirik gordetzea. Izan ere, Gerra Zibila, drama eta min asko sortu duelarik ere, berriatuar guztien ondare historikoa da; ondo ezagutu eta gorde beharreko ondasun immateriala.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Patxi Juaristi Larrinaga |
| ISBNa: | 978-84-9082-066-7 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 240 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Emakumeak, hitza eta bizitza




Liburu honek, jarduera akademiko baten emaitza izateaz gainera, emakume batzuk omentzeko ekimena izan nahi du. Oso egoera zailetan, gizartearen eta herrialdearen alde onena eman zuten emakumeei eginiko aitorpena eta omenaldia, hain zuzen ere. Azken hamarkada hauetan emakumeak lortzen ari diren aurrerapenez mintzatzean, eta egiteko dagoen guztia kontuan hartuta, erraza da aurrera begiratzea eta atzean utzitakoa ahaztea.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Pérez Urraza, Josu Chueca Intxusta (koord.) |
| ISBNa: | 978-84-9860-737-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 284 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Amets baten oinordeko gara - Heredamos un sueño
**Euskal Unibertsitatea - Universidad Vasca. 1936**




1866tik aurrera euskal erakundeek eta gizarteak unibertsitatea eskatu zieten behin eta berriz Espainiako gobernuei, baina aldarrikapen hori ez zen gauzatu 1936ko azarora arte, euskal autonomiarekin batera. Medikuntza Fakultatea baino ez zen eratu eta Bilbo erortzearekin batera itxi zituen bere ateak. Auzi horrek ondo erakusten du Euskal Herriaren konplexutasuna, bai lurraldeen arteko harremanei dagokienez, bai eta gizarte-taldeen eta indar politikoen arteko harremanei dagokienez ere.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Mikel Aizpuru Murua |
| ISBNa: | 978-84-9860-752-9 |
| Formatua: | 17 x 24 cm |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 280 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

# ARTEA

## Joseph Hiriart, *Art Déco*-aren maisu. Arkitektura-bidaia Lapurditik Tunisera (1925-1936)




Tunisiako iparraldean kokatzen da Tunis. Kartago antzinaroko hiritik hurbil eta Siziliako itsasertzetik 150 bat itsas miliara. Mendebaldean, bere Medinaren bizkarretik, *Sebkha Sedjoumi* lakua dauka, eta ekialdetik, *Bahira* zingira, zeina bere muturrean irekitzen baita Goletako kanalaren bidez, Tunisko golkoarekin eta Mediterraneo itsasoarekin bat egiteko. Bi hiri hartzen ditu bere baitan: Medina arabiarra eta hemeretzigarren mendetik aurrera zingira-lurren gainean eraikiriko hiri europarra. Azken honi Frantziaren enbaxadak eman zion hasiera 1862an. Enbaxada eta Medina lotzeko, *Promenade de la Marine* pasealekuaren lehen zatia zabalduko zen laster. 1881ean, herrialdea Frantziaren menpeko Protektoratua bilakaturik, bizkortu egin zen hiri kolonialaren eraikuntza, zoru-azalera handi bat irabaziz eta zingira-lurrak drainatuz eta betez. *Promenade de la Marine* zena, *Avenue de Paris* deituko zen aurrerantzean, eta pasealekuaren gainerako zatiak berriz, *Avenue Jules Ferry* izena hartuko zuen, Frantziaren kolonialismoaren aitzindariari omen eginez.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egilea: | Lauren Etxepare Igiñiz | Urtea: | 2020 |
| ISBNa: | 978-84-1319-169-0 | Or.: | 108 |
| Formatua: | 17 x 24 | Salneurria: | **10,00 €** |
| | | **Arte Textos, 8** | |

## Non dago Mikel Laboa?




Esku artean duzun saiakera honetan Mikel Laboaren bizitza-obra aztertzen da, sormenaren gainean dugun kuriositatea asetzeko. Sormenak gizartean duen eragina ikusteko. 60ko hamarkadan Mikel Laboak eta Marisol Bastidak izan zuten desio batek emango dio hasiera irakurketa honi: «mundu libreago, zuzenago eta gizatiarrago baten eraikuntzari ekarpen txiki bat behintzat egitea». Desio horrek mende erdia pasa ondoren utzitako lorratza sentitzeko parada izango dugu.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Josune Albisu |
| ISBNa: | 978-84-9082-944-8 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 260 |
| Salneurria: | **14,00 €** |
| **Mikel Laboa Katedra bilduma, 2** | |

## Mikel Laboa. Omenaldia • Homenaje




UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko diseinu grafikoko ikasleek Mikel Laboaren omenez eginiko irudi-lanen laburpen bat jasotzen du liburu honek. Ikuste-sorrera hauek artista donostiarraren lana eta irudia ikusteko, esateko eta imaginatzeko formetan parte hartzen dute. Adierazpen grafiko hauek, aukeratutako kantautorearen zenbait kanta-zatiren ondoan, gure kultur ondarearen leku partekatuen topaketa erakusten dute.

Azken finean, unibertsitatearen zereginetik beretik ateratzen den lan bat da, hurbileko ingurunea osatzen duten gauzei esanahaia eta zentzua emateko ardura daukan aldetik.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egileak: | Zenbait egile | Urtea: | 2017 |
| ISBNa: | 978-84-9082-757-4 | Or.: | 100 |
| Formatua: | 17 x 24 | Salneurria: | **14,00 €** |
| | | **Mikel Laboa Katedra bilduma, 1** | |

## Euskal zinema bideo bilera. 40 urte zinea eta euskara bultzatzen




Duela 40 urte (1978), Lekeitioko lau herritarren eskutik, Lekeitioko Zinema Bilera sortu zen. Euskal Herrian, euskal zinema eta bideoari eskainia geratzen den bakarra. Euskal zinema eta bideo amateurra, bertoko animazioa, bestelako bilerak eta jaialdiak, Lekeitiokoaren historia, sortzaileen gogoetak eta bilerarekin harremana duten bestelako gaiekin; honekin guztiarekin Lekeitioko Euskal Bideo eta Zinema Bilerari buruzko lehenengo liburua argitaratu da.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Zenbait egile |
| ISBNa: | 978-84-9082-729-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 120 |
| Salneurria: | **8,00 €** |

## Arteari buruzko oinarrizko kontzeptuak




Liburu hau *vademecum* gisa pentsatuta dago, erraz kontsultatzeko. Informazio zabal samarra, laburtua eta eguneratua eskaintzen du gaiaren alderdi nagusiei buruz. Sarrerak alfabetikoki antolatuta daude, eta gai hauei buruzko kontzeptu eta termino nagusiak aipatzen dira: arte plastikoak, arkitektura, dekorazio-arteak eta diseinua; guztia ikuspuntu teoriko, historiko, formal eta deskriptibo batetik begiratuta.

| | |
|---|---|
| Egileak: | José Mª Faerna García-Bermejo, Adolfo Gómez Cedillo |
| ISBNa: | 978-84-9082-243-2 |
| Formatua: | 15 x 21 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 234 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## Zientzia Astea. Alfabetatze zientifikoa - Alfabetización científica




Jakintza zientifikoa lotua dago eguneroko errealitatea ulertzeko eta harekin eraginkortasunez eragin-trukean jarduteko gure gizarte bilakaeran nagusi izan behar duten oinarrizko gaitasun batzuekin. Horretarako, diseinu grafikoaren bidez, nahasmenetik atera eta jakintza berria sortzen jarraitzeko, begiak ireki eta gure begirada berreraikitzeko beharraz ohartarazten lagundu nahi dugu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Eduardo Herrera Fernández, Leire Fernández Iñurritegi, María Pérez Mena |
| ISBNa: | 978-84-9082-042-1 |
| Formatua: | 15 x 21 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 224 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## Prozesu sortzailea kartelen diseinu grafikoan
## Un proceso creativo en el diseño gráfico de carteles




Diseinu grafikoari lanbide-izaera aitortuta, eta ikuspuntu didaktiko batetik, diziplina hau «tailerraren» zentzu itxian planteatzen da, ekintzan egituratuta. Proiektu erreal baten gainean «eginez ikasi» ideian oinarritutako ikuspegi honetatik, eta berariazko proposamen metodologikoarekin, UPV/EHUko Udako Ikastaroetako Diseinu Grafikoko Tailerrean sortutako hamar kartelen aurretiko gogoetak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Eduardo Herrera Fernández, Leire Fernández Iñurritegi |
| ISBNa: | 978-84-9860-844-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 286 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## EHU Tipografia korporatiboa - EHU Tipografía corporativa



EHU tipografiaren proiektua aurkezten dugu hemen, gure unibertsitateak helarazi nahi dituen nortasun bereziaren printzipioetan oinarrituta, publikoki hauteman, aurkeztu eta bereiziak izan daitezen. Unibertsitateak duen eguneroko eginkizuneko behar guztietara egokitzea bilatzen duen tipografia da eta UPV/EHUren izaera elebiduna kontuan hartzen duena, letra tipografiko bereko bi bertsio estilistiko baititu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Eduardo Herrera Fernández, Daniel Rodríguez Valero, Leire Fernández Iñurritegi, María Pérez Mena |
| ISBNa: | 978-84-9860-817-5 |
| Formatua: | 18 x 23 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 80 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## Raemaekersen marrazkiak: Britaniar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran




1916an *Raemaekers Olandi'ar margolari antzetsu erostiaren Marku-ostoak* izenburua zuen katalogo-liburuxka argitaratu zen Londresen. 1916ko arte-katalogo bat euskaraz aurkitzea harrigarria bazen ere, harritzeko arrazoi gehiago daude liburuxkaren argitalpen-hiria Londres dela konturatzen garenean. Zein da arrazoia euskarazko katalogoa Londresen argitaratzeko?

| | |
|---|---|
| Egilea: | Ismael Manterola Ispizua |
| ISBNa: | 978-84-9860-753-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 398 |
| Salneurria: | **24,00 €** |



Giza Zientziak · **Gizarte Zientziak** · Bizitzaren Zientziak · Zientzia Zehatzak eta Materiarenak · Zientzia eta Teknologia

## ZUZENBIDEA

### Administrazio publikoen analisirako sarrera




Gaur egun Gobernu eta Administrazio Publiko gisa ezagutzen dugunaren konplexutasuna dela eta (funtzioen, antolakundeen, kudeaketa-tekniken eta beste eragile soziopolitiko batzuekiko erlazio ugarien aniztasuna barne hartuta), Administrazio publikoen analisirako sarrera eskuliburuak gaiari buruzko egungo tresnetara, interpretazio-ereduetara, testuinguruetara eta eztabaidetara hurbiltzea eskaintzen du.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Zenbaiten artean |
| ISBNa: | 978-84-1319-235-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 196 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

### Lanerako eta komunikaziorako teknikak




Irakaskuntzak erakusten du ez dela nahikoa zerbait jakitea —hau da, ezagutza jakin batzuk ikastea, onenean—, baizik eta, horretaz gainera, egiten jakin behar dela; eta oso bestelako kontua da hori. Ez da nahikoa informazioa izatea; informazio hori manipulatzen, erabiltzen, aplikatzen, baliatzen, interpretatzen eta aztertzen ere jakin behar da.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Max Turull Rubinat (zuzendaria) |
| ISBNa: | 978-84-1319-279-6 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 344 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

## Lege-alderdiei buruzko hastapenak EAEko eraikingintza-prozesuan




Arkitektura Teknikoko Graduko bigarren mailako Zuzenbidea ikasgaia jarraitzeko eskuliburu honen helburua da ikasleei ezagutaraztea legezko marko profesionala, eta erraztea euren lanbidean erabili beharko duten ordenamendu juridikoari buruzko oinarrizko ezagutza, beren bizitza profesionalaren abiapuntuan koka daitezkeen tresna juridikoak eta teknikoak ezagutu ditzaten.

| | |
|---|---|
| Egilea: | María Iceta Etxabe |
| ISBNa: | 978-84-1319-239-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 446 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Hiztegi juridikoa




UPV/EHU da gaur egun zientzia juridikoen alorreko ikasketak oso-osorik euskaraz eskaintzen dituen erakunde bakarra. Eta, hain zuzen ere, erakunde honen konpromisoari eta bertako irakasle eta ikertzaile euskaldunen urteetako ekarpenari zor diegu eskuen artean dugun hiztegia. UPV/EHUren Zuzenbide Fakultatearen 50. urteurrenaren ospakizunen artean, hementxe dugu hiztegi hau zientzia juridikoak euskaraz irakasten egin ditugun 30 urteren ekarpen gisa.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Xabier Alberdi Larizgoitia, Miren Azkarate Villar, Joseba Ezeiza Ramos, Leire Imaz Zubiaur, Ixusko Ordeñana Gezuraga |
| ISBNa: | 978-84-1319-091-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 332 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Euskal Oinordetza Zuzenbideari buruzko azterketa




Herri ororen nortasuna zehazteko eta haren egitura eratzeko, elementu ezinbestekoa da Zuzenbide Zibila, hizkuntzaren eta kulturaren parean jartzen baita. Horregatik jotzen da gaur egun nahitaezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztientzat Zuzenbide Zibil bateratu bat osatzea; Gernikako Estatutuak bere gain hartutako eskumena baliatuz, azken batean Zuzenbide pribatua herri-nortasunaren eta euskal lurraldeen arteko kohesioaren elementu gisa erabiltzeko.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Zenbait egile |
| ISBNa: | 978-84-9860-954-7 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 116 |
| Salneurria: | **7,00 €** |

# EKONOMIA

## Historia ekonomiko globala. Sarrera labur bat




Zergatik dira herrialde batzuk aberatsak, eta beste batzuk pobreak? Liburu honetan geografiaren, globalizazioaren, aldaketa teknologikoaren, politika ekonomikoaren eta erakundeen eragin-trukea aztertzen da, munduko herrialdeen aberastasuna eta pobrezia nola finkatu dituzten erakusteko. Historiako adibideak erabiliz hazkundean eragina izan duten faktoreak aztertzeko, azaldu du zerk eragin duen gaur egun bizi garen mundu desorekatua.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Robert C. Allen |
| ISBNa: | 978-84-9082-935-6 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 146 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## Esku ikusezinaren itzal luzea




Azken krisi ekonomikoaren harira, esan ziguten jatorrian finantza-tsunamia edo -lurrikara zegoela. Adam Smithen esku ikusezin famatuak, beste behin, porrot egin zuen. Alta, merkatu libreak aldi oro azalarazten dituen gabeziak eta ezintasunak onartu eta erabakiak hartu beharrean, aldatu den bakarra liberalismo ekonomikoaren diskurtsoa izan da.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Permach Martin, Joseba |
| ISBNa: | 978-84-9082-921-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 134 |
| Salneurria: | **16,50 €** |

## Enpresaren zuzenbiderako sarrera. Eskemak



Enpresaren Zuzenbiderako sarrera: eskemak lanak oinarrizko tresna izan nahi du enpresa-jarduerari lotutako Zuzenbidearen edo arauketaren oinarrizko ezaugarriak eta edukia ikasteko. Liburuaren edukia eta egitura diseinatuta daude juridikoak ez diren graduetan, bereziki ekonomia- eta enpresa-zientziei lotutakoetan, Zuzenbidea modu errazean irakasteko eta ikasteko.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Itziar Villafáñez (zuz,/koor.)<br>Belén García,<br>Eider Larrazabal,<br>Josu Sagasti, Aitor Zurimendi |
| ISBNa: | 978-84-9082-149-7 |
| Formatua: | 30 x 21 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 266 |
| Salneurria: | **23,00 €** |

## Zuzendaritza estrategikoa. Teoria eta praktika




Liburu honek Zuzendaritza Estrategikoaren ikuspegi gaurkotu eta integrala eskaintzen du, eta curriculum diseinu berrien arabera dago pentsatua. Izan ere, curriculum horiek irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuetan lanbiderako gaitasunak garatzea dute helburu. Enpresetako adibide eta kasu erreal asko ematen dira, irakurleari gaia barneratzen eta enpresako praktikara eramaten laguntzeko.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Eneka Albizu Gallastegi, Jon Landeta Rodríguez (koord.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-055-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 224 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Egungo estrategia-analisia




Etorkizuna iragartzeko zailtasunak, nahasmenak eta lehia gogorrak nagusi dira enpresa-ingurune globalean. Estrategia, bestalde, gero eta garrantzitsuagoa da enpresentzat, aurrez antzeman ezin zaion enpresa-ingurune erronkaz betetako batean bizi baitira. Horrenbestez, ezinbestekoa zaie arreta irmoa jartzea balioa sortzeko oinarrietan, biziraungo badute eta haziko badira.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Robert M. Grant |
| ISBNa: | 978-84-9860-861-8 |
| Formatua: | 19 x 25 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 518 |
| Salneurria: | **42,00 €** |

## Munduaren historia ekonomikoa. X.-XX. mendeak




Historia ekonomikoaren arloko ikerkuntzak halako indarra hartu du azken hamarraldiotan, non zaila baita azken ikerketa eta ikuspegi guztien berri izatea. Horrez gainera, baldin eta nahi bada mila urte baino gehiagoko aldia aztertu —Erdi Arotik gaur egun arte— eta Europaren esparru estua gainditu, eginkizuna pertsona bakar baten helmenetik at dago ia. Hori dela eta, Espainiako zenbait unibertsitatetako irakasle talde baten ahalegin koordinatu gisa planteatu da liburu hau.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Francisco Comín Comín, Mauro Hernández Benítez, Enrique Llopis Agelán (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9860-866-3 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 484 |
| Salneurria: | **24,00 €** |

## Askotariko adimenak martxan




Liburu honen bidez, irakurleak jakingo du zer oinarri pedagogikotan funtsatzen den Montserrat ikastetxearen eguneroko jarduna, bai eta zer hezkuntza-jarduera bideratzen dituen askotariko adimenak lantzeko 0-6 urteko haurren artean, bizitzako aldi hori erabakigarriena baita burmuinaren garapen neurologikorako.

Helburua beti bat bera da: haur jakintsuagoak eta zoriontsuagoak heztea.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Montserrat Del Pozo<br>Cecilia Cortacáns,<br>Amudena Meroño |
| ISBNa: | 978-84-1319-333-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 300 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Zergatik eta nola bihurtu didaktikari?




Jean-Paul Bronckartek, zeina hizkuntzaren didaktikaren sortzaileetako bat baitugu, historia bat proposatzen digu hemen, oinarri harturik, batetik, diziplina honen egoeraz diharduten zenbait dokumentu eta, bestetik, diziplinak hizkuntzalaritzarekin eta garapenaren psikologiarekin duen harremana. Hizkuntzen didaktikari ekarpena egiten dioten bi zientzia horien ezagutzatik abiatuta, eta betiere arazo didaktikoei irtenbide zehatzak aurkitu nahian.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Jean-Paul Bronckart |
| ISBNa: | 978-84-1319-278-9 |
| Formatua: | 14 x 20 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 184 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## Lanbide Heziketako euskal ereduaren bilakaera




Liburu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren bilakaeraren sintesia da. Lanbide Heziketaren hasieratik (XIX. mendea) gaur arteko aldia hartzen du.

Lan honetan, Euskadiko Lanbide Heziketak historian zehar izan dituen aldaketak ikus daitezke, nagusiki hezkuntza-arloko transferentzia autonomikoen prozesutik abiatuta gertatu direnak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Hilario Murua Carton, Jon Altuna Urdin, Paulí Dávila Balsera, Ana Eizagirre Sagardia, Iñaki Zabaleta Imaz |
| ISBNa: | 978-84-1319-263-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 212 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Pozik bizi. 8-10 urte bitarteko umeen emozioak eta depresio-sintomak hobetzeko programa




Depresioa munduan hedatuen dagoen gaixotasuna da: 300 miloi pertsonari eragiten diela jotzen da. Haurrengan eta nerabeengan ere oso maiz ageri da. Hala ere, haurrengan gutxitan diagnostikatzen da, haurrek askotan ez baitakite zer gertatzen zaien edo ez baitute behar bezala azaltzen beren ondoeza. Horregatik, gurasoek ez ezik, eskolak eta irakasleek ere paper garrantzitsua izan dezakete depresioaren identifikazioan.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Elena Bernaras Iturrioz, Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor, Maite Garaigordobil Landazabal |
| ISBNa: | 978-84-1319-061-7 |
| Formatua: | 20 x 26 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 144 |
| Salneurria: | **25,00 €** |

## Hizkuntza-normalizazioa. Planak eta plangintzak ikastetxeetan




Eleaniztasuna eta Hezkuntza Europarra Masterrean kokatuta dagoen Hizkuntza Normalkuntza Plangintzak Ikastetxeetan ikasgaiak eskaini digu aitzakia honako liburu hau idazteko, UPV/EHUko ikasleriak eskura izan dezan kontzeptuak lantzeko kontsultategia. Hala ere, jatorria, hastapenean Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza Plangintza (IHNP) izenez eta geroago Ulibarri Programa izenez ezagutzen dugun horretan koka genezake.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Miren Lore Erriondo Korostola, Xabier Isasi Balanzategi |
| ISBNa: | 978-84-9082-659-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 144 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Heziketa fisiko moderno baterako ikuspuntuak




Pierre Parlebas, bi aldiz Honoris Causa Doktorea eta Frantziako Ohorezko Legioko zalduna, Frantziako Heziketa Fisikoaren erreferentziazko azken autorea da. Lan txiki hau haren hitzaldi bateko transkripziotik abiatzen da, Andaluziako Juntak 1996an argitaratua eta *Perspectivas de una educación física moderna* izendatua. Onerako edo txarrerako, lan interesagarria eta gaur egungoa izaten jarraitzen du.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Pierre Parlebas |
| ISBNa: | 978-84-9082-458-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 76 |
| Salneurria: | **7,00 €** |

## Hezkuntza-ebaluazioa




Hezkuntza-ebaluazioa ezinbesteko tresna da gaur egun hezkuntza-prozesuen kalitatea bermatzeko, bai eta prozesu horiek etengabe hobetzen jarraitzeko ere. Testuinguru horretan, azken hamarkadetan aldaketak gertatu dira hezkuntza-ebaluazioan, eta bilakatuz joan da, gaur egungo egoerara iritsi arte. *Hezkuntza-ebaluazioa* izenburuko liburu honek hezkuntza-ebaluazioaren gaur egungo gakoak eskaintzen dizkie hezkuntzako profesionalei.

| | |
|---|---|
| Egileak: | José Francisco Lukas Mujika, Karlos Santiago Etxeberria |
| ISBNa: | 978-84-9082-418-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 330 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Eskola kulturaniztunetan irakastea eta ikastea




Liburu honek eskolek eta irakasleek izan ditzaketen ikuspegien eta estrategien adibideak eman nahi ditu, zertarako eta eskola eta ikasgela kulturaniztunetako ikasle guztien beharrei erantzuten dieten hezkuntza-esperientziak eskaintzeko. Ideia asko bereziki lagungarri gertatuko zaizkie etorkin berriak hartzen dituzten eremuetako hezitzaileei.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Elizabeth Coelho |
| ISBNa: | 978-84-9082-447-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 284 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Kubik: antzezlan bat baino gehiago... Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat




Lau ardatzen inguruan egindako liburua da: haur hezkuntza, antzerkia, ikerketa eta irakasle(gai)en prestakuntza. Loris Malaguzzi pedagogo italiarraren leloa geure eginez, arestiko lau ardatzen inguruan dauden hainbat errealitate ikusezin ikusgarri egiteko saiakera ere bada ikerlan hau. Izan ere, hezkuntza aztergai nagusia duen HEZIKER diziplinarteko taldeak plazaratu duen lehen liburu honetan, 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako ikasleentzako *Kubik* antzezlana ikergai hartu da.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Zenbait egile |
| ISBNa: | 978-84-9082-044-5 |
| Formatua: | 15 x 21 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 154 |
| Salneurria: | **10,00 €** |

## Genero berdintasunean hezteko gida




XXI. mendean oraindik haur eta nerabeek generoaren ikusmolde sexistaren araberako uste, rol eta jokabide estereotipatuak garatzen dituzte. Hori saihestu ezean, haur eta nerabe horiek generoan oinarritutako diskriminazioa, indarkeria fisikoa, berdintasunik eza eta antzekoak normaltzat hartu edo/ eta eragiteko arriskua dago. Zorionez, bada arriskua saihesteko biderik. Hain zuzen ere, hezkidetza delako hezkuntza mota.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Luixa Reizabal Arruabarrena |
| ISBNa: | 978-84-9082-194-7 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 196 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

## Gorputz-adierazpena lehen hezkuntzan




Gorputz-adierazpena da gorputz-heziketako irakasleen artean pasio gehien sortzen duen eduki multzoa: batetik, beldurra, konfiantzarik eza, ikara, ezinikusia sortzen ditu eta, bestetik, poza, algara, lilura, miresgarritasuna. Irakasleak eduki multzo horrekiko duen iritziaren arabera modu batean edo bestean iritsiko da ikasleengana eta, hala, eduki horiek saihesteko edo lantzeko gogoa sortuko da.

| | |
|---|---|
| Egilea: | M.ª Teresa Vizcarra Morales (koord.) |
| ISBNa: | 978-84-9860-971-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 212 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak. Laguntzarako materiala: teoria eta praktika




Bihar goizeko bederatzietan ikasgela beteko duten berrogeita hamar ikasleren aurrean ahoskeraz hitz egin behar dut, hain zuzen ere, prosodiaren ezaugarriez eta gaitasun hau lantzeko baliabideez. Han izango ditut ehun begi eta beste horrenbeste belarri zoli niri adi, ez dakit zer ez zelan azaldu..., arrangura horrek bultzatu gaitu liburu hau idaztera, badakigu jakin galdera eta kezka guztiei ezin erantzun diezaiekeguna, baina gure lan hau bide ebakitzailea izango delakoan egin dugu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Iñaki Gaminde, Gotzon Aurrekoetxea, Aintzane Etxebarria, Urtza Garay, Asier Romero |
| ISBNa: | 978-84-9860-969-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 160 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Kirol-entrenamenduaren oinarriak eta kontzeptuak




Kirol-errendimendu maximoa lortzea da kirolari guztien xedea, zeinahi mailatan dihardutela ere. Helburu hori lortzeko, lan-prozesu zorrotz bat bete behar dute; prozesu horri, hain zuzen ere, prestakuntza edo entrenamendu deitu ohi diogu. Eredu militarra gurera ekarriz, «kirol-estrategia» egoki bat prestatu beharra dago kirol-errendimendu maximoa lortzeko —estrategiatzat hartuz unean-unean erabaki egokiena hartuko dela bermatzen duten arauen multzoa—.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Juan Manuel García Manso, Manuel Navarro Valdivielso, José Antonio Ruiz Caballero |
| ISBNa: | 978-84-9860-712-3 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 542 |
| Salneurria: | **32,00 €** |

## 10 gako. Argudiatzeko eta frogak erabiltzeko gaitasunak




María Pilar Jiménez Aleixandre, gaur egun, zientzien didaktikako katedratikoa da Santiagoko Unibertsitatean, hamabi urtean Bigarren Hezkuntzako irakasle izan ondoren. Bigarren Hezkuntzan hautespen naturala nola ikasten den eta ingurumen-hezkuntza nola integratzen den aztertu du; eta hamar urte honetan, berriz, ikertu du nola argudiatzen den zientzietako eskoletan eta frogak nola erabiltzen diren.

| | |
|---|---|
| Egilea: | M.ª Pilar Jiménez Aleixandre |
| ISBNa: | 978-84-9860-736-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 206 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

# PSIKOLOGIA

## Haurtzaroaren psikologia




Henri Wallonek erabateko ekarpena egin dio haurtzaroaren psikologiari. Aldi berean ikuspegi genetiko eta dialektikotik haurraren bilakaera bermatzen duten faktoreen eta jaiotzetik bertatik bilakatzen diren uneen inguruko ezagutza zabala eta sakona zehaztu du. Wallonen ekarpena ezagutzeak, haur txikia hobeto ulertzearekin batera, bere garapenari begira haurra hazten den testuinguruaren garrantziaz ohartzea dakar.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Henri Wallon, (Elena Herrán Izagirre arg.) |
| ISBNa: | 978-84-9082-801-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 112 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Arrantza-sektoreko langileen arrisku-faktore psikosozialen hastapenak. Introducción al estudio de los factores de riesgo psicosocial en trabajadoras y trabajadores del sector pesquero




Amaia Ituartek, 2016ko bere Master Amaierako Lan honetan, Euskadiko ekonomian gakoa den lehen sektoreko arrisku-faktore psikosozialak aztertu ditu, arrantzarenak, hain zuzen. Europako arrantza jarduera osoan bezala, XX. mendeko bigarren erdian sortu zen krisi garrantzitsu bat ari da jasaten: etengabe ikusten ari gara azken urteotan; adibide bat emateko, duela 30 urte zeuden 8.000 lanpostuetatik 2014ko 1.985etara jaitsi da.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Amaia Ituarte Zelaia, Alfonso Apellaniz González |
| ISBNa: | 978-84-9082-552-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 248 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

## Oroimena




Jendeak jakin-mina du oroimenaren inguruan eta oroimenaren hutsegite ikusgarrien inguruan; adibidez, amnesia duten pertsonen kasuan. Baina oroimenari buruz ikasten ari diren ikasleek, batzuetan, ez dute lortzen jakin-min horrek irautea. Arrazoia argia da: oroimena aztertzeko, kontu handiz diseinatutako esperimentuak gauzatu behar ditugu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Alan Baddeley, Michael W. Eysenck, Michael C. Anderson |
| ISBNa: | 978-84-9860-968-4 |
| Formatua: | 20 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 462 |
| Salneurria: | **30,00 €** |

# SOZIOLOGIA

## Emakume bizkor eta eraginkorrak Bilbon (1800-1936)




Bilboren garapenean parte hartu zuten emakumeen bitartez, hiriaren historia hobeto ezagutzeko parada eskaintzen du liburu honek.

Horretarako, bi atal nagusitan antolatu da, aipatu emakumeek Bilbon egin zuten bizitza oinarritzat hartuta. Lehendabiziko atalean, hiru ikerketaren bitartez, historia garaikidean emakumeek Bilbon bizi izan zuten egoera jarri da bere testuinguruan. Bigarren atalean, historia horren hamar protagonista aurkeztu dira.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Joseba Agirreazkuenaga, Mikel Urquijo, María José Villa |
| ISBNa: | 978-84-1319-164-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 172 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Emilio Lopez Adan. Euskal iraultza libertarioaren pentsalari




Lehen partea biolentzia politikoaren memorien gainekoa da. Militantziari dagokionez, erabat harturik, 1964tik 1974ra ETAn militatu zuen. Lopez Adanen jardueran alde ideologiko-intelektuala gailentzen da; gehiago izan da teorikoa ekintzailea baino; hori esan orduko erantsi behar da, baina, alde teorikoa praktikarekin oso loturik garatu izan duela beti. Bigarren partean, iraultzaren eta bortxaren arteko harremanez Lopez Adanek aditzera emandakoak tolesten dira.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Pako Sudupe Elortza |
| ISBNa: | 978-84-1319-245-1 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 220 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## Nazionalismoa eta kultura. Entseguak eta iruzkinak Euskal Herriaren alde




Liburuaren gai nagusa nazionalismoa da, edo abertzaletasuna beste batzuk esango luketen bezala. Gauza bera ote da hitz bien bidez adierazten dena? Bai eta ez.
Liburu honetan autorea ez du azaltzen zer den nazionalismoa; bestelakoa da haren asmoa: nazionalismo zehatz hau, hori edo hura nolakoa den zehaztea. Hori da, dudarik gabe, liburu honen gakoa.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Pruden Gartzia Isasti |
| ISBNa: | 978-84-1319-247-5 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 174 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Euskadi indarkeriaren ondoren. Euskadi después de la violencia




Liburu honek Euskadiko ETAren ondorengo egoera edo bake-prozesua aztertzen ditu, ideologia- eta metodologia-ikuspuntu ezberdinetatik, gatazkaren ostekoak diren hurrengo gai giltzarrien gaineko gogoeta eginez: biktimen politikak, justizia leheneratzailea eta justizia trantsizionala, adierazpen-askatasuna, ETAren armagabetzea eta desagertzea, indarkeriak gizartean izan duen eragina...

| | |
|---|---|
| Egileak: | Jon Mirena Landa Gorostiza (zuzendaria), Enara Garro Carrera (koordinatzailea) |
| ISBNa: | 978-84-9082-393-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 310 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Mundu-ikuskerak. Nazioarteko Harremanetako korronte teorikoak




Karlos Pérez de Armiño Nazioarteko Harremanetako irakaslea da EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Halaber, Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzailea eta zuzendaria da. Liburu honetan Nazioarteko Harremanak deritzogun diziplinaren mapa teorikoa marrazten da; hau da, arlo akademiko hori osatzen duten korronte teoriko desberdinen, eta joera horien artean izaten diren eztabaiden ezaugarriak azaltzen dira.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Karlos Pérez de Armiño |
| ISBNa: | 978-84-1319-101-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 242 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Ikerkuntza sozialaren estiloak. Epistemologia, anarkia zerbait eta soziosofia pixka bat




Ordena soziala politikaren bidez egiten da (profesionalek lagunduta), eta zientziaren bidez pentsatzen da (ikerkuntzak lagunduta). Gizartea aldatuz joan da, ekiteko eta gogoeta egiteko baliabideak ere aldatu egin direlako. Ikerkuntza sozialean, zehazki, teknika kuantitatiboen enfasia baztertu eta teknika kualitatiboak erabiltzen hasi dira, teknika parte-hartzaile eta esku-hartzaileetara iritsi arte. Zer soziala eraikitzeko modu heteronomo eta hierarkiko bat adierazten dute teknika horiek.

| | |
|---|---|
| Egilea: | José Ángel Bergua |
| ISBNa: | 978-84-9082-917-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 236 |
| Salneurria: | **17,00 €** |

## Nazioarteko Harremanak zer diren




Autoreek sistematikoki lantzen dituzte Nazioarteko Harremanen teoriako ikergai klasikoak –boterea, interes nazionala, kanpo-politika eta gerra–, eta orobat aztertzen dute globalizazioak segurtasunean, gobernantzan eta mundu-ekonomian izan duen inpaktua. Horrenbestez, agerian jartzen dute nola hizpide diren teoriak baliagarri diren zentzua emateko munduko gertakarien puzzleari.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Chris Brown, Kirsten Ainley |
| ISBNa: | 978-84-9082-781-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 320 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

## Nazioarteko Harremanetako 14 giltza-hitz




Liburu honetan Nazioarteko Harremanetako nozio gakoetara hurbiltze berri bat eskaintzen da. Diziplina honetako hamalau indar-ideia eta kontzepturen aukeraketaren bitartez, lan hau eztabaidarako gaiekin lehenengo kontaktua izango da. Sarritan, irakasgai honetako zailtasunetariko bat termino zehatzen erabileran datza; diziplinaren beraren garapena markatu eta azalpen bat merezi duten nozioak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Zenbait egile |
| ISBNa: | 978-84-9082-502-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 216 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten. *Hutsune* bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu




Ikerketa lan honetan, *eromen* terminoa berreskuratu nahi izan du egileak. Mendebaldeko medikuntza-sistema hegemonikoak «buruko gaixotasuna» erabiltzen du gaur egun; baina termino horrekin, ez da adierazten «deskubritze» hori kulturalki eta sozialki baldintzatuta dagoela. Kontrako aldean koka dezakegu *eromen* terminoa; zientifikotasunik gabekotzat jotzen da gehienetan.

**Micaela Portilla Saria 2016**

| | |
|---|---|
| Egilea: | Itxaso Martin Zapirain |
| ISBNa: | 978-84-9082-761-1 |
| Formatua: | 14,8 x 23 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 328 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

**Gizarte Zientziak Saila, 22**

## Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia




Liburu honek azken urteetan gure testuinguruan garatu diren edo garatzen ari diren ikerketa antropologiko feministen berri ematen du. Sarrerako kapituluan jasota gelditzen denez, asko dira laurogeiko hamarkadatik hona emakumeen errealitatea aztertu edota genero-ikuspegia erabili duten euskal antropologoak, ekarpen interesgarriak egin dituztenak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Mari Luz Esteban Galarza, Jone Miren Hernández García |
| ISBNa: | 978-84-9082-462-7 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 284 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Basker. 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak




1963ko urtarrilean eta otsailean, Dan Grenholm eta Lennart Olson erreportariek Euskal Herria bisitatu zuten hainbat astetan zehar, eta euskal kulturari eta folkloreari buruzko bi film labur dokumental etnografikotarako filmazioa egin zuten. *Basker* eta *Bonde i Baskerland* filmak Sveriges Radio TV suediar telebista publikoan eman ziren urte bereko udan.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Argibel Euba Ugarte |
| ISBNa: | 978-84-9082-470-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 262 |
| Salneurria: | **19,00 €** |

## Energia trantsizioak: iraunkortasuna eta demokrazia energetikoa




Lan honen eta trantsizio sozioekologiko eta energetikoei buruzko beste hainbat lanen sorburuan erregai fosilen eta hondakin-hustulekuen agortzea eta sistema sozioekonomikoaren beraren ahitzea daude nagusiki. Gizartea ere akituta dago, hainbat arrazoigatik itota: langileen esplotazioa, zaintza-lanak ikusezin izatea, egiturazko doikuntzak eta hazkunde ekonomikoaren gorazarrea.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Leire Urkidi, Rosa Lago, Izaro Basurko, Martin Mantxo, Iñaki Bárcena, Ortzi Akizu |
| ISBNa: | 978-84-9082-311-8 |
| Formatua: | 15 x 21 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 234 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## Antropologiako hiztegia




Hizkuntzak elkarlanean garatzen dira. Gure kasuan, unibertsitateko gaiak euskaraz jorratzeko, ezinbestekoa da dagokion alorreko adituen eta hizkuntzalarien arteko lankidetza. Horretan ari dira hala UPV/EHUko Euskara Zerbitzua eta jakintza-alorrak, besteak beste. Hala, *Antropologiako Hiztegi* hau Antropologia Fakultatearen eta Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlanaren emaitza da.

| | |
|---|---|
| Egileak: | UPV/EHUko Euskara Zerbitzua eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saila |
| ISBNa: | 978-84-9082-041-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 410 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Zer da kasuzko gizarte-langintza? Sarrera gisako deskribapen bat




Mary Ellen Richmond-ek gizarte-langintzaren oinarri zientifikoak ezarri zituen, bai lanbidearenak bai jakintza-arloarenak. Izan ere, gizarte-langintzaren eremuan, jardun profesionalerako eta prestakuntza akademikorako lehen proposamen teoriko-metodologikoak egin zituen. Mary Ellen Richmonden obra aztertu duten egileak bat datoz haren ekarpenak gaurkotasun handikoak direla baieztatzean.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Mary Ellen Richmond |
| ISBNa: | 978-84-9860-679-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 170 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## Erakundeen soziologia




Gero eta argiago dago energia berriztagarriak energia-irtenbiderik onena direla. Alde on ugari dituzte: 1. Garbiak dira (oso gutxi kutsatzen dute, edo ia batere ez). 2. Berriztagarriak dira. Eguzkia, haizea, olatuak, ibaiak, lurra... energia-iturri agortezinak dira. 3. Klima-aldaketa mantsotu dezakete. 4. Haien erabilerak garapen harmoniko eta orekatua, ingurumena errespetatzen duena, lortzen lagundu dezake.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Eva Esteire Guereca, Ana Madrid Cenzano, Antonio Madrid Vicente |
| ISBNa: | 978-84-9860-713-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 292 |
| Salneurria: | ~~38,00 €~~ **28,00 €** |

## Makina elektrikoak. Oinarrizko kontzeptuak eta aplikazio-ariketak




Makina elektrikoek garrantzi handia dute ingeniaritza-ikasketa gehienetan, eta sakon lantzen dira industria-ingeniaritzan. Makina elektriko mota asko badira ere, erabilienak, zalantzarik gabe, transformadoreak, makina sinkronoak eta makina asinkronoak dira, hau da, korronte alternoaren eremuan sartzen direnak.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Zenbait egile |
| ISBNa: | 978-84-9860-698-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 692 |
| Salneurria: | **36,00 €** |

# MATEMATIKA

## Kalkulua. Ariketa ebatziak




Kalkulua irakasgaiari dagozkion ariketa ebatzien liburua da hau. Liburua Donostiako Informatika Fakultateko ikasketetan irakasten den izen bereko irakasgaian oinarrituta dago; hala ere, beste zientzietan izen berarekin edo beste batekin ematen diren antzeko irakasgaietarako ere egokia izan daitekeela uste dugu.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Patxi Angulo Martín |
| ISBNa: | 978-84-9082-777-2 |
| Formatua: | 21 x 30 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 300 |
| Salneurria: | **23,50 €** |

## Aljebra lineala ondo egina




Aljebra linealeko testuliburu hau Matematikako graduko zein graduondoko ikasleei zuzendua dago. Liburu honetan hartutako hurbilketa berritzailean, amaierarako utzi dira determinanteak; arretagunea aljebra linealaren xede nagusian jarri da: dimentsio finitua duten bektore-espazioetako eragile linealen egitura ulertzea. Egileak ohi baino arreta handiagoa jarri du kontzeptuak nondik datozen azaltzen eta frogak sinplifikatzen.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Sheldon Axler |
| ISBNa: | 978-84-9082-623-2 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 354 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

# ARKITEKTURA

## Landa etxebizitza Euskadin, oraina eta etorkizuna. 1. atala: azterketak




Behe Erdi Aroko lehenengo dorretxe eta baserrietatik XIX. mende amaierako bizitegi ereduetaraino, landa etxebizitza tipologiak aldatuz joan dira historian zehar, garai historiko bakoitzaren beharretara egokituta. Lan honek aztergai ditu bizitegi tipologia horiek, oraindik gure lurraldean dirautenak, gizartea jasangarritasun ekonomiko, energetiko eta funtzionalaren eredu berrietara egokituko diren bizitegi ereduak eskatzen ari den une batean.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Ibon Telleria Julian, Daniel Luengas Carreño |
| ISBNa: | 978-84-1319-354-0 |
| Formatua: | 21 x 29,7 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 120 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Arkitektura eta hirigintzako gidaliburua leku seguruak sortzeko.
### Oinarrizko kontzeptuak eta gomendioak
## Guía de arquitectura y urbanismo para generar lugares seguros.
### Conceptos básicos y recomendaciones




Segurtasunik ezaren pertzepzioa edo delituarekiko beldurra pertsona batek delitu baten biktima izateko duen beldurra edo izua da. Segurtasunik ezaren pertzepzioa oztopo psikologiko bat da, eta gure portaera mugatzeaz gain, hainbat eratako egoera emozionalak, jarrerak edo pertzepzioak eragiten ditu. Alderdi indibidualean, delituarekiko beldurrak berekin dakar askatasun pertsonalaren mugatzea, bakartze soziala eta konfiantza pertsonalik eza.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Ezekiel Collantes Gabella |
| ISBNa: | 978-84-1319-351-9 |
| Formatua: | 21 x 29,7 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 116 |
| Salneurria: | **18,00 €** |

## Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak.
### Metodo interpretatzaile konstruktibista baten proposamena, Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaia menditsuen kasuan aplikatua




Liburu honek oinarri duen tesia hiri-bazterreko paisaien izaeraren interpretazioari buruzko lan bat da. Ikerketak jorratu duen arazoa konbinazio bat da; batetik, paisaion izaera kontzeptualizatzeko ohiko irudikapen problematikoa edota generikoa legoke, eta, bestetik, paisaia-plangintza eta paisaien zaharberritze-prozedurentzat paisaiok behar bezala ezagutzen ez diren tokiak direnez gero, egiten den erronka legoke.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Maider Uriarte Idiazabal |
| ISBNa: | 978-84-9082-702-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 226 |
| Salneurria: | **21,00 €** |

## Hirigintza-antolamendua. Kontzeptuak, tresnak eta jardunbideak




Hirigintza-antolamenduari dagozkion kontzeptuak, tresnak eta jardunbideak ezagutu beharra dago, baldin eta modu eraginkorrean parte hartu nahi bada gure hiriak proiektatzeko eta eraikitzeko lanean. Ikasleei, hainbat diziplinatako tituludunei eta oro har hiriaren etorkizuna definitzean parte hartzen duten pertsona guztiei zuzendua dago liburu hau.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Juli Esteban Noguera |
| ISBNa: | 978-84-9082-463-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 336 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## Hirigintzaren oinarriak




Hirigintza zabala bezain liluragarria da. Artea, zientzia eta politika nahasten dituen hiriaren egintza kaleen eta eraikinen diseinu soiletik askoz harago baitoa. Adreilu-burbuilaren karira ugaldutako negozio ilunek itzal handiegia egin dioten honetan, beharbada, inoiz baino egokiagoa da hirigintzaren oinarriak ezartzen saiatzea. Betiere, hiriaren dimentsio-aniztasuna kontuan hartuz.

| | |
|---|---|
| Egileak : | Unai Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta |
| ISBNa: | 978-84-9082-052-0 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 176 |
| Salneurria: | ~~18,50 €~~ **9,00 €** |

## Sareetan zehar dantzan Java erabiliz




Gauzen Internetek –Internet of Things (IoT)– izugarrizko bilakaera izan du azken urteotan. Egunero erabiltzen dugu sarean dagoen aplikazioaren bat, eta ezinbesteko tresna bihurtu da. IoT delakoaren aplikazioak ingurune banatuetan egikaritzen dira, hau da, edozein tokitan eta sarearen bidez konektatuta dauden gailuetan; adibidez, sakelako telefonoetan, konputagailu pertsonaletan, sentsoreetan, tabletetan...

Esku artean daukazun «Sareetan zehar dantzan Java erabiliz» izeneko liburua berezia da. Aipaturiko ingurune banatuetan hain ezagun bihurtu diren aplikazioak programatzeko, oinarrizko kontzeptuak ikastea da liburuaren helburuetako bat. Baina Java programazio-lengoaia ere aipatzen da izenburuan. Horrek esan nahi du klaseak eta objektuak hau da, Objektuetan Oinarritutako Programazioaren oinarrizko kontzeptuak sarean dantzan ipini nahi ditugula.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egileak: | Iñaki Goirizelaia, Maider Huarte | Urtea: | 2021 |
| ISBNa: | 978-84-1319-286-4 | Or.: | 444 |
| Formatua: | 17 x 24 | Salneurria: | **24,00 €** |

## SPSS eta R Commander. Ikerketa ez-esperimentaletako datuen analisia




Testuliburu honen helburua ikerketa ez-esperimentalen datuak aztertzeko maiztasun handiz erabiltzen diren analisi-prozedurak eta adierazpen grafikoak aurkeztea da. Testuarekin lortu nahi dena da ikerketaren eremuan hasiberriak diren pertsonek, analisi egokia aukeratu, SPSS edo R Commander programa estatistikoa erabiliz analisia burutu, egoki interpretatu eta emaitzak idatz ditzaten.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Arantxa Gorostiaga, Jone Aliri, Nerea Lertxundi, Nekane Balluerka, Ana I. Vergara |
| ISBNa: | 978-84-9082-866-3 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 196 |
| Salneurria: | **17,00 €** |

## Zenbakizko metodoak MATLAB erabiliz




Liburu honen bidez, zenbakizko metodoen oinarriak eskaintzen dira, bai ikuspuntu teoriko batetik, bai ikuspuntu aplikatu batetik. Iraganean, zenbakizko analisian eta teorian oinarritzen zen zenbakizko metodoei buruzko ikasturte bat, baina, gaur egun, irakasgai horren edukia garatzean, kontuan hartu behar dugu ordenagailu ahaltsuak eta kalkulu-software eraginkorrak eskura izatea.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Eugenio Mijangos Fernández |
| ISBNa: | 978-84-9082-690-4 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 222 |
| Salneurria: | **13,00 €** |

## PYTHON programazio-lengoaia: oinarriak eta aplikazioak




Liburu hau ez dugu sortu Python lengoaiaren xehetasun guztiak eta zehaztasun osoz deskribatzeko, baizik ikasteko material motibatzailea eskaintzeko. Adibideak ikustea, probatzea eta horien hobekuntzak programatzea baita ikasteko metodorik onena. Python lengoaia sinplea, ulergarria eta ahaltsua da. Lengoaiak bere barruan dakarren funtzionaltasuna ez da oso zabala, baina oso erraza da oinarrizko muin hori zabaltzea.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Iñaki Alegría Loinaz, Olatz Pérez de Viñaspre Garralda, Kepa Sarasola Gabiola |
| ISBNa: | 978-84-9082-439-9 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 174 |
| Salneurria: | **18,50 €** |

## Programen espezifikazio, egiaztapen eta eratorpen formala




Gaur egun, software fidagarria, hau da errorerik gabea, sortu ahal izateko ezagutza, metodoak eta teknologia egon badaude. Horretarako, software-garatzaileek aplikazio erabat fidagarriak garatu ahal izateko erreminta eta teknikak erabiltzeko eta sortzeko gaitasuna emango dien prestakuntza zientifiko-teknikoa izatea beharrezkoa da. Liburu honek software fidagarria eraikitzeko erabiltzen diren metodoen atzean dauden programen espezifikazio-, transformazio- eta egiaztapen-tekniken hastapenak ikasteko aukera eskaintzea du helburu.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Javier Alvez Gimenez, Xabier Arregi Iparragirre, Jose Gaintzarain Ibarmia, Paqui Lucio Carrasco, Montse Maritxalar Anglada |
| ISBNa: | 978-84-9082-428-3 |
| Formatua: | 17 x 24 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 314 |
| Salneurria: | **24,00 €** |



ZIO
Tutik ere ez dakigu
Unibertso ezezagunerako gida bat
JORGE
CHAM
DANIEL
WHITESON
Utilitarismoa
John STUART MILL
Limes
LEGEAK 24 LEYES
Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legea
Ley del Patrimonio de las Administraciones Públicas
LEGEAK LEYES
EUSKAL LITERATURA SAILA
22
Egungo euskal krimen-literatura
Jose Manuel López Gaseni, Jon Kortazar (arg.)
Ur Apalategi, Maite Aperribay-Bermejo, Asier Barandiaran, Miren Billelabeitia, Mari Mar Boillos, Xabier Etxaniz, Karla Fernández de Gamboa, Susana Jodra, Stewart King, Jon Kortazar, Jose Manuel López Gaseni, Jon Martin, José Antonio Mielesin, Santiago Pérez Isasi, Fco. Javier Rojo, Aiora Sampedro Alegria

LIBURU BILDUMAK

# Euskal Literatura Saila
# Limes
# ZIO
# Legeak-Leyes



## 22 · Egungo euskal krimen-literatura




XIX. mendearen erdi aldean sortua izan arren, polizia- eta krimen-literaturak ez du gaurkotasunik ez osperik galdu. Hain zuzen ere, bere burua etengabe berritzen jakin duelako, hasierako enigma nobelagintzatik «eleberri beltza» izenez ezagutzen dugunaren askotariko aldaeretara, eta are herrialdean herrialdeko ezaugarri berezietara.Euskal Herrian ere landu da generoa, hainbat bidetatik, eta horren erakusgarri izan nahi du lan honek.

| | |
|---|---|
| Egileak: | José Manuel López Gaseni, Jon Kortazar Uriarte (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-1319-338-0 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 322 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## 21 · Egungo euskal literatura eta futbola




Literatura eta futbola bi errealitate kontrajarritzat har badaitezke ere, asko dira baieztapen horrek errealitatearekin zerikusirik ez duela erakusten diguten adibideak. Athletic Club Fundazioak «Letrak eta Futbola» ekitaldiaren inguruan urtero egiten dituen ekimenek agerian uzten dute ez direla bi mundu desberdin, elkarrekin bizi direla eta elkarri esateko asko dutela (www.letrasyfutbol.com).

| | |
|---|---|
| Egileak: | Mari Mar Boillos, Jon Kortazar (arg.) |
| ISBNa: | 978-84-1319-281-9 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2020 |
| Or.: | 220 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## 20 · Kultura ez da bat-batekoa. Bertsolaritza aztergai




Bete-betean asmatzen dutenean, abestiek, liburuek, koadroek, pelikulek, bertsoek... gu liluratzeko ahalmen ikaragarria dute. Instant batean gertatzen da, beren sarean kateatuta gelditzen gara, baina hori izerbegaren punta baino ez da. Liluraren oinarriak ikusezinak dira gehienetan. Gustua eraiki egiten da/digute/dugu, ertz asko dituen prozesu konplexu batean. Beraz, kultura globalizatuaren garaian ba al dago erraldoia ez denarentzat tokirik? Badago, bai.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi, José Alfredo Retortillo |
| ISBNa: | 978-84-1319-078-5 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 196 |
| Salneurria: | **14,00 €** |

## 19 • Identitatearen eraldatzea subjektu literario postmodernoan




Liburuak testuinguru literarioan subjektu postmodernoak dituen agerpena, ezaugarriak eta aldaerak azaltzen ditu eta horrek garamatza baieztatzera subjektu narratiboek jasaten duten identitatearen krisiak bat egiten duela mendebaldeko gizarteetako kulturan postmodernitateak eragiten duen desoreka identitarioarekin.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Iratxe Esparza Martin |
| ISBNa: | 978-84-1319-065-5 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 208 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## 18 • Herri kontakizunak Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan: bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa




Liburu honen oinarria Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan euskaraz egindako ahozko literaturako kontakizunen bilketa lana da. Kontakizun horiek aztertu eta sailkatzean, zati handi bat irri ixtorioek osatzen zutela konturatuta, irri ixtorio horien ezaugarrietan sakondu da: egitura, gaiak, beste hizkuntza batzuetan horiei buruz egindako azterketak... Irri ixtorioez gain, leiendak, ipuin miresgarriak, txisteak... ere jaso dira.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Maialen Moreno Zubeldia |
| ISBNa: | 978-84-9082-809-0 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 408 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## 17 • Egungo euskal komikiaren historia




Euskal komikiaren historia literario bat osatzeko bidean, lehen urratsa da egitasmo hau, komikigintzara hurbiltzeko begirada jakin bat jorratu baita ibilbide historikoa osatzerakoan: begirada literarioa eta begirada linguistikoa. Horretarako, bi atal nagusi bereizi dira: lehenik, euskal komikiaren joera eta plataforma nagusiak aurkeztu dira, interpretazio historiko-literarioranzko lehen urratsak emateko; bigarrenik, zenbait komiki-liburu xeheago aztertu dira.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Iratxe Retolaza Gutiérrez (alearen arduraduna) |
| ISBNa: | 978-84-9082-629-4 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 354 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## 16 • Mendi literatura




Zentzu zabalean, mendiaz diharduen literaturari deritzo mendi literatura; zentzu hertsiagoan, mendizaleen literaturari. Ikerlan honetan, munduan eta Euskal Herrian generoak izan duen bilakabidea aztertzen da. Menditik pasatu dira profetak, Antzinatean, jainkoen bizilekutik jaitsita errebelaziozko mezua zabaltzeko; naturalistak, Errenazimentuan eta Ilustrazioan batez ere, natura ezagutu eta deskribatzeko.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Haritz Monreal Zarraonandia |
| ISBNa: | 978-84-9082-542-6 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2017 |
| Or.: | 584 |
| Salneurria: | **28,00 €** |

## 15 • Hamaika euskal literato eta Jainkoa




Hamaika euskal idazle, bi aroren mugan, biziari, denari, badenari eta ez denari, «Jainkoari» eta Jainkoari buruz galdezka. Zaude ziur, bide erraz eta atseginagoetatik eramango zaitu Sebas Gartzia Trujillok, pausorik pauso, bihurgunerik bihurgune, hamaika idazle eta askoz gehiagoren albiste jakingarriak hemen, bizitzako pasadizo bitxiak hor, bizi-poz eta zauriak hunkigarri noiznahi, aipamen ongi hautatuak argigarri nonahi.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Sebastian Gartzia Trujillo |
| ISBNa: | 978-84-9082-451-1 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2016 |
| Or.: | 896 |
| Salneurria: | **35,00 €** |

## 14 • Euskal literatura itzulia. Bernardo Atxagaren lanak erdaretan




Erdaratutako literatur itzulpenen kopurua gorantz doa azken urteotan, eta liburu honetan kanpora itzuliriko horri begiratu nahi izan diogu. Zer itzuli den jaso eta aztertzea izan da gure lehen helburua, euskal literatur sistemaren nondik norakoei erreparatuz, betiere. Gurea literatur sistema diglosikoa izaki, itzulpen bide ezberdinak azaleratu ditu eginiko azterketak.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Elizabete Manterola Agirrezabalaga |
| ISBNa: | 978-84-9082-068-1 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2014 |
| Or.: | 228 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## **13** • Egungo euskal saiakeraren historia




Liburu honetan euskal saiakerak azken urte hauetan izan dituen emaitzak aztertzen dira. Horretarako lehenengo atal batean saiakerari buruzko oinarrizko kontzeptuak azaldu eta azken hamarraldi hauetan euskal saiakerak erakusten dituen ezaugarri nagusiak (atal laburretan antolatutako saiakerak egiteko joera, euskal esparruko gaietan zentratu nahia, gatazka eta haren inguruko kontuek daukaten garrantzia...) eta abar.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Fco. Javier Rojo Cobos (alearen arduraduna) |
| ISBNa: | 978-84-9860-829-8 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 180 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## **12** • New York - Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz




Saizarbitoriaren ***Martutene*** (2012) da euskal literaturako eleberririk garrantzitsu eta kalitatezkoena, euskal kanonaren ardatz bihurtzera deitua dena. Eleberri horrek lehena eta geroa berrikusteko perspektiba berria ematen digu: euskal XX. mende luzea (1898-2012), abertzaletasunak definitua (Arana, ETA) eta globalizazio neoliberalaren krisiak (2008) amaitua.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Joseba Gabilondo Alberdi |
| ISBNa: | 978-84-9860-731-4 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 204 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## **11** • Egungo euskal antzerkiaren historia




Estatutua onartu ondoren Autonomia Erkidegoan eratu erakundeek abian jarririko kultur politikekin batera beste literatur genero batzuetan gertatutako loraldia ez da garapen munta berekoa izan literatura dramatikoari dagokionez. Lan honek, aldez edo moldez, Estatutua onartu zenetik gaur arte mugaz alde bietan argitaraturiko literatura dramatikoa aztertzea izan du helburu.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Karlos del Olmo (alearen zuzendaria) |
| ISBNa: | 978-84-9860-665-2 |
| Formatua: | 13,5 x 21,5 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 240 |
| Salneurria: | **16,00 €** |

## 22 · Tutik ere ez dakigu. Unibertso ezezagunerako gida bat




Gizadiak mundu fisikoari buruz duen ezagutza hutsunez beterik dago. Ez dira horiek, alabaina, hutsune txikitxo batzuk, hola-hola ez ikusi egitekoak, baizik eta izugarrizko leize hondogabeak munduaren funtzionamenduari buruzko gure ideia oinarri-oinarrizkoetan. Jorge Cham komikilariak eta Daniel Whiteson partikula-fisikariak elkar harturik ekin diote unibertsoari buruz ez dakigun hori guztia arakatzeari: kosmosaren ezagueran ditugun zulo itzelak, alegia.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Jorge Cham, Daniel Whiteson |
| ISBNa: | 978-84-1319-347-2 |
| Formatua: | 15 x 23 |
| Urtea: | 2021 |
| Or.: | 504 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## 21 · Mikrobiologiaren mundu liluragarria




Liburu honen helburua mikrobioen mundua desmitifikatzea da. Jakina da kaleko jendeak informazio okerra izaten duela sarritan mikrobioez, irudi desitxuratu eta aurreiritziz betea. Oro har, mikrobioak gauza negatiboekin lotzen ditugu, eta ez gara jabetzen mikrobio gehienak ez direla kaltegarriak; kontrara, horietako asko onuragarriak ere badira. Beraz, mikrobioen mundua hobeto ezagutarazi nahi genuke liburu honekin.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Josu Albero |
| ISBNa: | 978-84-1319-082-2 |
| Formatua: | 15 x 23 |
| Urtea: | 2019 |
| Or.: | 184 |
| Salneurria: | **12,00 €** |

## 20 · Zientziaren historia txiki bat




Zientziaren esparrua bezain zabala dugu kontagai hau, eta zientziaren ibilbidea bezain luzea: gauzak zenbatzeari eta zeruak arakatzeari ekin zioten antzinako jakintsuetatik hasi, eta galaxien sakona aztertzen eta ordenagailu kuantikoak apailatzen ari diren espezialistetaraino. Infinituki txiki denaren eta baztergabe handi denaren arteko zer guztiak ditu ikergai zientziak, natura nola antolaturik dagoen jakiteko ahalegin etengabean.

| | |
|---|---|
| Egilea: | William F. Bynum |
| ISBNa: | 978-84-9082-945-5 |
| Formatua: | 16 x 24 |
| Urtea: | 2018 |
| Or.: | 392 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## **19** · Zergatik den $E = mc^2$ (eta zergatik axola zaigun)




Orain bertan, liburu hau eskuetan duzularik, argiaren abiaduran mugitzen ari zarela esango banizu, seguruena ez zenidake sinetsiko, eta burutik ondo ote nagoen zalantza egingo zenuke. Hala da, ordea, eta horixe erakutsi zigun Einstein-ek ***E = mc2*** formula ospetsuaren bidez. Cox-ek eta Forshaw-ek azalduko digute nola litekeen hori.

| | |
|---|---|
| Egileak: | Brian Cox, Jeff Forshaw |
| ISBNa: | 978-84-9082-165-7 |
| Formatua: | 16 x 24 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 274 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## **18** · Epigenetikaren iraultza




Iritzi arruntak zioen DNAko gene proteina-kodetzaileek erabakitzen zutela izaki baten zer-nolakoa: geneon kode betiko finkoan legoke, hala, bizidunon patu biologikoa. Hartara bultzatzen zuten, izan ere, genetika artean garatzeko egoteak eta aurrerantzean zekarkeenaren itxaropen bero eta, inoiz, zoro batek. Denborarekin, ordea, pilatuz joan ziren datuak uste horren aurka.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Nessa Carey |
| ISBNa: | 978-84-9082-211-1 |
| Formatua: | 16 x 24 |
| Urtea: | 2015 |
| Or.: | 458 |
| Salneurria: | **22,00 €** |

## **17** · Zergatik den egia eboluzioa




Inork ez luke zertan libururik idatzi garbi uzteko atomoak, izan, badirela, edo Lurra Eguzkiaren inguruan biratzen dela. Beraz, eboluzioa egunean-egunean berresten ari den arren, biologiaren ardatz izateraino erabat, zergatik da beharrezkoa ***Zergatik den egia eboluzioa*** izenburuko liburu bat?

| | |
|---|---|
| Egilea: | Jerry A. Coyne |
| ISBNa: | 978-84-9860-881-6 |
| Formatua: | 16 x 24 |
| Urtea: | 2013 |
| Or.: | 446 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## 16 · Longitudea




GPSa eta abar tresna arruntak diren garai honetan, ezin aproposagoa da ospe handiko liburu honek dakarkigun historia ederra. Erlojugile bat da protagonista nagusia, baina hor ibiliko dira, lehia berean loturik, astronomoak, itsasgizonak, matematikariak eta agintariak, besteak beste.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Dava Sobel |
| ISBNa: | 978-84-9860-745-1 |
| Formatua: | 16 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 198 |
| Salneurria: | **15,00 €** |

## 15 · Descartesen hutsegitea




Egungo zientziaren ikergai zirraragarrienetariko bat da Damasiok darabilena: ea nola eratortzen den materia soiletik espiritua esaten zaion hori. Horra gogamena gogoeta sakonean bere izate eta jatorriaz, behaketa zorrotzarekin uztarturik introspekzio ernea. Emozioaren eta arrazoiaren arteko erlazioa da saiakera ospetsu honen gai nagusia.

| | |
|---|---|
| Egilea: | Antonio Damasio |
| ISBNa: | 978-84-9860-744-4 |
| Formatua: | 16 x 24 |
| Urtea: | 2012 |
| Or.: | 428 |
| Salneurria: | **20,00 €** |

## **27** • Utilitarismoa




Utilitarismoa 1861ean argitaratu zen, atalka, merkeago eta eskuragarriago izan zedin, eta 1863an liburu moduan. Korrontearen inguruan zeuden gaizki-ulertuak desegin eta teoriaren oinarriak modu argian azaltzeko idatzi zuen. Helburu horrekin utilitatearen printzipioa azpimarratzen du: ekintzak zuzenak izango dira ahalik eta jende gehienaren zoriona edo ongizatea bultzatzen duten heinean, hau da, mina leundu eta plazera handitzen duten neurrian; okerrak, aitzitik, sufrimendua eta zoritxarra eragiten badute.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Egilea: | John Stuart Mill | Formatua: | 13 x 21 | Or.: | 192 |
| ISBNa: | 978-84-1319-351-9 | Urtea: | 2021 | Salneurria: | **16,00 €** |

## **26** • Robespierreren lan hautatuak




Robespierreren lan hautatuak izenburupean argitaratzen den edizio hau pentsalariaren hitzaldi adierazgarrienen bilduma bat da, Auguste Vermorel-ek (1841-1871) egina eta 1866an Parisen argitaratua. Hauek dira, besteak beste, Robespierrek hitzaldietan jorratzen dituen gai nagusiak: Ba al du mugarik adierazpen askatasunak? Esporta al daiteke indarrez demokrazia? Irakats al daiteke herritar espiritua? Ba al liteke herria oker egotea? Berdintasun politikoa izateko, beharrezkoa al da berdintasun soziala? Zigortu behar al dute heriotzarekin iraultzaileek erregea? Etsai publikoek ba al dute eskubiderik legeek babes ditzaten?

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Egilea: | Maximilien Robespierre | Formatua: | 13 x 21 | Or.: | 386 |
| ISBNa: | 978-84-1319-241-3 | Urtea: | 2020 | Salneurria: | **20,00 €** |

## **25** • Florentziako gobernuaz solasean




Guicciardinik bere garaiko politiko inportante batzuek Florentziako gobernuaz duten balizko solasaldia erakusten digu, aurrez egileak proemio esanguratsu eta argigarrian bere helburuak azaltzen dizkiolarik irakurleari. Lehen liburuak metodo politikoaren inguruko diskurtsoa garatzen du. Bigarrenak erakundeen berrikuntzei buruzko alderdi praktikoetan sakontzen du eta burutu beharreko aldakuntzak proposatzen, bere hirian ahalik eta gobernu errepublikar onena ezarri ahal izateko.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Egilea: | Francesco Guicciardini | Formatua: | 13 x 21 | Or.: | 392 |
| ISBNa: | 978-84-1319-069-3 | Urtea: | 2019 | Salneurria: | **20,00 €** |

## **24** • Saio politiko eta ekonomiko hautatuak




Saio hautatu hauek aukera ematen digute David Humeren pentsamendu politiko eta ekonomikoan sakontzeko, non kortse filosofikoetatik aske ageri baita. Naturari eta boterearen mugei buruzko analisiek, askatasun politikoari buruzkoek, bai eta analisi ekonomiko hutsek ere, pentsalari eskoziarraren zorroztasun eta jenialtasun jatorrena erakusten digute.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Egilea: | David Hume | Formatua: | 13 x 21 | Or.: | 530 |
| ISBNa: | 978-84-9082-771-0 | Urtea: | 2017 | Salneurria: | **25,00 €** |

## **23** · Politika




Hitzak dira itzultzailearen tresnak. Baita filosofoarenak ere. Harlauza horiek Aristotelesek berak jarri zizkigun bere POLITIKAko zortzi liburuetan, gizakiaren bizitzako bidaia deskribatzean. Bakar jaiotzen da jaiotzez. Ez, baina, bakarti. Bidaia luze-labur bateko lehen pausoa da gizabanakoaren sorrera.

| | | |
|---|---|---|
| Egilea: Aristoteles | Formatua: 13 x 21 | Or.: 668 |
| ISBNa: 978-84-9082-475-7 | Urtea: 2016 | Salneurria: **28,00 €** |

## **22** · Gogoetak. Hiritarren eta estatu gizonaren brebiarioa




Zoriona edo zorigaitza, on edo gaitz ote den, barne-organoak nolakoak diren. Onean, istripuek, aberastasunek, ohoreek, osasun-kontuek, gaixotasunek ematen edo kentzen dute zoriona. Haatik, gaitzean, istripuek luzatzen edo laburtzen dute zorigaitza. Zorionaz edo zorigaitzaz mintzatzen garenean, tronpatu egiten gara beti; egoerak aztertzen baititugu, eta ez gizonak.

| | | |
|---|---|---|
| Egilea: Montesquieu | Formatua: 13 x 21 | Or.: 252 |
| ISBNa: 978-84-9082-050-6 | Urtea: 2014 | Salneurria: **17,00 €** |

## **21** · Antzinako Erregimena eta Iraultza




Aristokraziarik ez dagoen gizarteetan -edo aristokrazia izatea ezinezkoa den gizarteetan-, askatasunak soilik egin diezaieke aurre modu eraginkorrean halako gizarteen berezko akatsei, askatasunak soilik geldiaraz dezake halako gizarteen gainbehera.

| | | |
|---|---|---|
| Egilea: Alexis de Tocqueville | Formatua: 13 x 21 | Or.: 622 |
| ISBNa: 978-84-9860-947-9 | Urtea: 2014 | Salneurria: **24,00 €** |

## **20** · Tratatu politikoa




Baruch Spinozak filosofia original eta eraldatzailea eraiki zuen, gizakia eta natura ikuspegi arrazionalista batetik begiratzen duena, aurreiritziei, tradizioari edota sinesmen arruntei amore eman gabe. Tratatu Politikoak sistematikoki aurkezten du Spinozaren filosofia politikoa. Gizarte politikoak, beldurrak eta itxaropenak bultzatutako gizaki zaurgarrien batasunak eraginda ezartzen dira. Jendetzaren ahalmenetik sortzen da errepublika, arrazoiaren gidaritzak autonomoagoa eta iraunkorragoa egingo duena.

| | | |
|---|---|---|
| Egilea: Baruch Spinoza | Formatua: 13 x 21 | Or.: 286 |
| ISBNa: 978-84-9860-891-5 | Urtea: 2013 | Salneurria: **19,00 €** |

## **24** · Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legea – Ley del Patrimonio de las Administraciones Públicas




Administrazio publikoen ondareari buruzko 33/2003 Legeak arautzen du, orokorrean eta beste ordenamendu juridiko batzuetan, ondasun publikoen araubide juridikoa izenez ezagutzen dena. Normalean ondasun publikotzat hartzen da Estatuarena edo haren administrazio publikoena dena, edo erromatar Zuzenbidean ***res publica***tzat edo gauza publikotzat jotzen zenaren zerbitzura dagoena.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-1319-280-2 | Formatua: | 13 x 21 | Or.: | 316 |
| | | Urtea: | 2020 | Salneurria: | **18,00 €** |

## **23** · Nazioarteko Zuzenbide Publikoa: oinarrizko testu aukeratuak – Derecho Internacional Público: selección de textos Fundamentales




*Legeak-Leyes* bildumako 23. ale honek euskara juridikoaren funtsezko eremu bat —Nazioarteko Zuzenbide Publikoa— garatzeko eta finkatzeko ezinbestekoak diren testu batzuk jartzen ditu Zuzenbideko profesional, ikasle eta ikertzaileen eskura, baina baita Zientzia Politikoetan, Kazetaritzan, Nazioarteko Harremanetan eta beste zenbait jakintza-arlotan dihardutenen eskura ere.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-1319-094-5 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 236 |
| | | Urtea: | 2019 | Salneurria: | **14,00 €** |

## **22** · Espainiako auzitegietako prokuradoreen estatutu orokorra – Estatuto general de los procuradores de los tribunales de España




Abokatuarena ogibide juridiko klasikoenetako bat da, bai eta ezagunenetakoa ere, gizartean sakonki iltzatua dagoena. Abokatu hitza ahoskatu, eta automatikoki defentsa-eskubidea datorkigu burura, sakona eta hautsiezina delako bi kontzeptuen arteko lotura. Zuzenbide-estatu baten ezaugarri nagusietako bat da defentsa-eskubidea, herritarrentzat oinarrizko eskubide gisa sortu eta diseinatua izan dena (EKren 24.2 art.)

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-954-7 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 74 |
| | | Urtea: | 2018 | Salneurria: | **10,00 €** |

## **21** · Espainiako abokatutzaren estatutu orokorra – Estatuto general de la abogacía española




Justiziaren Administrazioan parte hartzen duten agente eta operadoreen artean, auzitegietako prokuradoreak nabarmentzen dira. Jurisdikzio-ahalmena egikaritzean, epaile eta magistratuei dagokie protagonismo nagusia, ezinbestekoa denez, haiek baitira ahalmen horren titular edo jabe. Halere, epaitu eta epaitutakoa betearazteak, alderdien artean izan daitezkeen gatazkak konponduz, agente ugariren parte-hartzea dakar berekin.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-952-3 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 132 |
| | | Urtea: | 2018 | Salneurria: | **12,00 €** |

## **20** • Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra – Ley General de la Comunicación Audiovisual



Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra funtsezko lege bat da gaur egungo informazio-gizartean. Sektore hori arautzeak ikuspuntu askotatik du garrantzia. Parte-hartzaileak eta administrazio eskudunak ere askotarikoak dira. Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Legeak sektore horren bilakaera teknologikoarekin loturiko alderdiei eragiten die, batez ere irrati-telebista analogikoak atzera utzi eta digitaletara jauzi egin denez geroztik.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-634-8 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 182 |
| | | Urtea: | 2017 | Salneurria: | **12,00 €** |

## **19** • Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa - Estatuto Orgánico del Ministerio Fiscal



Espainiako Konstituzioaren 124. artikuluaren arabera, Ministerio Fiskalari dagokio justiziaren ekina sustatzea legezkotasunaren, herritarren eskubideen eta legeak babesten duen interes publikoaren defentsan. Beharrezkoa da funtsezko aldaketa batzuk egitea indarrean den Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoan.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-471-9 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 162 |
| | | Urtea: | 2016 | Salneurria: | **16,00 €** |

## **18** • Kapital-sozietateei buruzko legeria – Legislación sobre sociedades de capital



Lehenengo atal nagusia 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategina Onesten duenari dagokio. Arau honek testu bakar batean biltzen du aurreko bi lege berezien edukia.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-396-5 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 740 |
| | | Urtea: | 2016 | Salneurria: | **26,00 €** |

## **17** • Genetika eta Biomedikuntzari buruzko hainbat lege - Selección de leyes sobre Genética y Biomedicina



Giza eskubideak eta gizakiaren duintasuna biologiaren eta medikuntzaren aplikazioak direla-eta babesteko hitzarmena (Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko hitzarmena), Oviedon 1997ko apirilaren 4an sinatutakoa, berresteko tresna.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-237-1 | Formatua: | 15 x 21 | Or.: | 592 |
| | | Urtea: | 2015 | Salneurria: | **22,00 €** |

## **16** • Botere Judizialaren Lege Organikoa - Ley Orgánica del Poder Judicial




Botere Judizialaren Lege Organikoa erreferentzia da epaileriaren estatutu juridikoan, «Zuzenbide Judiziala» izenez ere ezaguna, hiru eratako funtsezko alderdiak barne hartzen dituena: alderdi subjektiboak, alderdi objektiboak, eta, azkenik, alderdi formalak.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9082-069-8 | Formatua: | PDFa | Or.: | 688 |
| | | Urtea: | 2014 | Salneurria: | **DOHAIN** |

## **15** • Gizarte arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat ereduren bilduma elebiduna - Colección bilingüe de formularios utilizados en el ámbito jurisdiccional social




Jakina da gaztelania dela hizkuntza nagusia auzitegietan. Baina ez edozein gaztelania, ez eguneroko bizitzako jardueretan erabiltzen dena, baizik eta denboraren poderioz eta ohituragatik auzitegien aurrean mintzatzeko sortuz joan den berezko modu bat.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9860-886-1 | Formatua: | PDFa | Or.: | 132 |
| | | Urtea: | 2013 | Salneurria: | **DOHAIN** |

## **14** • Lehiari buruzko Legeria - Legislación sobre competencia




xx. mendean oso bilakaera bizkorra izan du lehiaren zuzenbideak, enpresajardueren bilakaerari erantzun ahal izateko, eta mende horretan nazioartea astindu duten krisi politikoen, Berlingo harresiaren erorketaren, edo globalizazioaren eta krisi ekonomikoaren babesean.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ISBNa: | 978-84-9860-750-5 | Formatua: | PDFa | Or.: | 462 |
| | | Urtea: | 2012 | Salneurria: | **DOHAIN** |





eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea